

2015 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXX.edizioa

Ipuina

Komikia

Bertsoa



Antolatzailea:



Begarako Udala
EUSKARA BATZORDEA

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

Ipuina

1. taldea:

Saria: Elene eta tximeletak. June Kalboetxeaga	7
Saria: Hartzaren irakaspena. Aitana Ariztegi	11
Saria: Euskararen sekretua. Urko Gainza	15

2. taldea:

Saria: Antxon tripontzia. Maider Bilbao	19
Saria: Elurretako misterioa. Zaloa Unamuno	23
Saria: Natura eta kutsadura. Hodei Murgizu	27

3. taldea:

Saria: Koadroaren begipeko malkoa. Unai Martinez	31
Saria: Basoko sekretua. June Arando	35
Saria: Txutxe wars. Eki Zuzaeta	39

4. taldea:

1. saria: Egunerokoa. Miriam Moñux	43
2. saria: Inork ez zuen esan erraza izango zenik. Jone Jauregi, Irati Aranzabal, Irati Gardoki	55
3. saria: Begiak itxi ditzala horrela ez nauenak gustuko. Jane Agirre	61

5. taldea:

1. saria: Laboratorium Chemicum. Mikel Babiano	65
2. saria: Kartzelako atearen beste aldeko bizitza. Ainhoa Pardina	77
3. saria: Ametsean bidaia. Amaia Etxaniz	85

Bertsoa

1. taldea:

Saria: **Finalaren bila**. Iñaki Aldazabal93

Saria: **Jatekuak**. Maider Iribecampas97

2. taldea:

1. saria: **Bergarako herria**. Nagore Otadui, Paula Palacios, Aitor Elgoro101

3. taldea:

1. saria: **Euskal Herri feminista**. Maddi Txintxurreta105

Komikia

1. taldea:

Saria: **Mariren abenturak**. Anne Matilla109

Saria: **Igel bat motorrian**. Iker Etxaniz119

2. taldea:

1. saria: **Bapateko maitasuna**. Belen Pelicano, Eider Goikoetxea121

2. saria: **Patxik nola salbatu zuen lurra**.
Jon Imanol Elgarresta, Danel Diaz de Gereñu123

3. taldea:

1. saria: **Aurrerapen oso atzeratua**. M^a Angeles Padilla125

2. saria: **Langileak beti langile**. Joseba Carnicero127

Urtero legez, aurtengo Koldo Eleizalde lehiaketako uzta ere oparoa izan da: ipuinak, txisteak, bertsoak, komikiak...

Gure herriko sortzaile txiki zein nagusien ilusio, sormen eta gogotik egindako lanen bilduma ederra eta bizia jasotzen da eskuartean duzuen liburuxka honetan.

Sortzaile horietako bakoitzaren barne-musika bereziaz jabetzeko aukera bikaina da, irakurle gisa gozatzeko eta disfrutatzeko.

Egoerak eraginda, aurten liburuaren ale kopuru txikiagoa atera dugu. Edonola ere, jakizue Koldo Eleizalde lehiaketako lan hauek eta beste hainbat (antzerkiak, ipuin-kontaketak...) gozatu ahal izango direla Internet bidez, <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketa> helbidean. Han izango dituzue lehiaketara aurkeztutako ikusentzunezko guztiak.


Amaitzeko, zorionak saridunoi eta eskerrik beroenak parte-hartzaileoi zein lehiaketa posible egin duzuen guztioi. Aurrerantzean ere parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko gonbidapena egiten dizuet. Mila esker eta zorionak guztioi!!!

Izaskun Labaien

Euskara batzordeburua


Ipuinak

Behenengo taldea Saria



June Kalboetreaga

**Elene
eta tximeletak**



Elene eta tximeletak

Eleneri asko gustatzen zitzaion bere logelako leihotik lorategian zebiltzan tximeletei begiratzea. Gainera, berak ez zuen anai-arrebarik eta batzuetan bakarrik sentitzen zenez, tximeletak begiratzen asko entretenitzen zen.

Egunero jaikitzerakoan leihora hurbildu eta ikusten zituen tximeleta guztiak zenbatzen zituen.

Askotan pentsatzen zuen asko gustatuko litzaiokeela bera ere tximeleta izatea, horrela, beste lurralde batzuetara joateko.

Baina egun batean tximeletei begira zegoela, haietako bat berarengana hurbildu eta hitz egiten hasi zitzaion:

–Kaixo neskatxa!

Elene oso urduri jarri zen. Ez zekien zer egin.

Pixka bat beldurtu ere egin zen, baina tximeletak hitz egiten jarraitu zuen:

–Ez zaitez beldurtu! Egunero ikusten zaitugu leihoan guri begira eta zure laguntza eske etorri naiz.

–Zertarako nahi duzu nire laguntza, ba?

–Tximeleta erreginak umeak izan ditu eta horietako bat hego bakarrarekin jaio da.

–Eta nik zer egin dezaket?

–Zuk, zure logelan, tximeleta itxura duen panpina bat daukazula ikusi dut, eta panpina horrek ez du hegan egiten, ezta?

–Nola egingo du ba hegan nire “Barbie tximeletak”? Panpina bat da eta!

–Orduan, zer iruditzen zaizu berak erabiltzen ez dituen hego horiek gure erreginaren umearentzat ematen badizkidazu?

–Baina, zuk uste duzu panpina baten hegoek balioko dutela benetan hegan egiteko?

–Utzidazu probatzen, mesedez!

Elene bere panpinaren bila joan zen eta segituan kendu zizkion hegoak eta leihora eramane zituen bere lagun tximeletari emateko.

Honek hegoak hartu eta berehala desagertu zen.

Hurrengo egunean ez zen tximeletarik agertu. Eleneren leihoan eta hau tristatu egin zen. Baina hurrengo goizean, Elene oraindik lo zegoela, zarata bat entzun zuen eta leihora joan zen korrika. Sekulako poza hartu zuen bertan bi tximeleta ikusi zituenean, aurrekoan ezagutu zuena eta tximeleta erreginaren umea bere panpinaren hego politekin!

–Beraz, funtzionatu du! Hegoek hegan egiteko balio dute!

–Bai lagun! Zuri eskerrak ematera etorri gara, eta hemendik aurrera egunero etorriko gara zu ikustera.

Horrela, Elene eta tximeletak betiko lagunak egin ziren eta Elene ez zen gehiago bakarrik sentitu.

Ipuinak

Behenengo taldea Saria



Aitana Ariztegi

Hartzaren irakaspenna

Hartzaren irakaspena

Baziren behin Ainara eta Jon izeneko bi neska-mutiko. Hauek Bergaran bizi ziren. Ainarak zortzi urte zituen eta Jonek, berriz, zazpi.

Egun batean mendira joatea erabaki zuten. Egun eguzkitsua zen, zeruan ez zen hodeitxo bat ere ageri.

Menditik zehar zebiltzala hartz bat ikusi zuten. Hartzak umeak ikusi zituenean haiengana hurbiltzen hasi zen.

Ainara eta Jon, guztiz beldurturik, korrika ihes egiten hasi ziren.

Ainarak, korrika zihoala, estropezu egin zuen eta zulo baten barrura erori zen. Zuloan guztiz beldurtuta zegoen.

Jonek, berriz, zuhaitz batera igotzea lortu zuen.

Hartzak Ainara begiztatu zuen, eskua luzatu eta zulotik irteten lagundu zion.

Ainarak eta Jonek hartzaren jarrera ikusi zutenean guztiz lasaitu ziren. Ez bakarrik lasaitu, baizik eta aho zabalik gelditu ziren.

Horrela, Ainara zulotik irten zen eta Jon zuhaitzetik jaitsi zen.

Hartzak mendi buelta erakutsi zien eta benetako lagunak egin ziren.

Ainarak eta Jonek sekula ez dute ahaztuko hartzak erakutsi zien paisaia. Berak irakatsi zien mendia maitatzen eta, nola ez, baita animaliak ere.

Ipuinak

Behenengo taldea Saria



Urko Gainza

Euskararen sekretua

Euskararen sekretua

Egun batean, Espainiatik etorri eta erdaraz hitz egiten zuen mutil batek, erdaraz galdetu zuen:

–Non ikasten da euskara?

–Zer? Zergatik?

Eta erantzun zuen erdaraz:

–Euskara ikastera etorri naiz.

–Eskumara joan behar zara, bertan duzu mintzalagun taldea.

Eta erdaraz esan zuen:


–Oso ondo, eskerrik asko!

Euskaraz hitz egiten eta hitz egiten aritu zen, egunak joan eta egunak etorri, baina bere ustez ez zuen asko ikasten.

Bizikletan zihoala “Euskal Herrian euskaraz” abestia entzun zuen eta asko gustatu zitzaion, bai horixe!

Euskara ikasteko sekretua zein zen ulertu zuen: “euskara maitatzea eta euskaldun sentitzea”. Bihotzetik ahora joaten delako erraz gure euskara maitea.

Gora euskara eta Euskal Herria!



Ipuinak

Bigarren taldea Saria

M
B

**Antxon
tripontzia**

Maidor Bilbao

Antxon tripontzia

Bazen behin sagu txiki, txiki, txiki bat Antxon izenekoa. Euskal Herrian bizi zen, mendi tontor bateko baserri batean, paretako zuloxoetan. Egunero artoa, intxaurrak etab. jaten zituen, baina baserrikoek pastelak, pasta, pizza, txokolatea... jaten zutenean bera ere irrikan egoten zen pusketa bat hartzeko. Sagutxoak bazuen lehengusu bat Italian eta amona Bruselan.

Baserrikoak Italiara joan behar ziren oporretan eta pentsatu zuen bere lehengusua bisitatzea joatea. Baserriko baten maletan sartu eta han joan zen Italiara. Ailegatutakoan maletatik irten eta lehengusuaren etxera joan zen. Iritsi zenean han zegoen lehengusua pizza jaten eta bera ere pizza jatera jarri zen. Egunero, gosaltzeko, bazkaltzeko, meriendatzeko eta afaltzeko pasta edo pizza zeukaten.

Hainbeste pasta eta pizza jateaz nazkatu egin zen eta lehengusuari esan zion. Lehengusuak erantzun zion: “Gaur kamioi bat pasatuko da Bruselara” eta Antxonek pentsatu zuen amona bisitatzea. “Agur” esan zion lehengusuari eta kamioira salto egin zuen.

Bruselara ailegatu zenean amonak txokolatea eman zion jateko. Konturatu zenean egunero txokolatea jaten zela nazkatu egin zen. Amonari “agur” esan eta Euskal Herrira abiatu zen autobusez.

Etxean zegoenean pentsatu zuen hobe izango zela, txokolate, pasta eta pizza gutxiago eta intxaurreta arto gehiago jatea. Eta, hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Bergarako plazan.

Ipuinak

Bigarren taldea Saria



Zaloa Unamuno

Elurretako misterioa

Elurretako misterioa

Urtarrileko egun hotz bat zen eta astebururo bezala eskiak hartu eta mendirantz abiatu ginen. Zerua ez zegoen urdin-urdin baina, hala ere, egun ona egiten zuen eskiatzeko. Nire ahizpa eta gurasoekin teleaulkia hartu eta mendi tontorrera abiatu ginen.

Behin goian geundela, zerua iluntzen eta haizea zakartzen hasi zen. Eskiatzen jarraitzen genuen baina nik nire betaurrekoekin geroz eta gutxiago ikusten nuen.

Haize indartsuak elurra jasotzen zuen eta izugarrizko mina ematen zidan. Dena zuri-zuri zegoen. Beldurtuta nengoen. Non zegoen nire familia? Ai ene! Mendian galduta nengoen. Negarrez hasi nintzen.

Halako batean argi bat ikusi nuen niregana etortzen. Izaki arraro bat zen. Ni baino txikiagoa zen. Begi handiak zituen, sudurra zimurtuta eta ahoa txiki-txikia. Oso iletua zen hotzetik babesteko. Oinak erraketak bezalakoak zituen. Berarekin joateko esan zidan. Berak lagunduko zidala esan zidan.

Jarraitu egin nion eta bera bezalako izakiz betetako herritxo batera heldu ginen. Non nengoen? Zeintzuk ziren izaki haiek? Pozik zeuden. Festa antzeko bat ospatzen ari ziren: batzuk abesten, beste batzuk jolasten. Herri polita zen. Izotzez egindako etxe txikiz beteta zegoen. Nire lagunak edari bat eman zidan. Ez nekien edan edo ez. Edan egin nuen.

Halako batean... Nire familia! Mendia! Eguzkia!

Ez nengoen galduta! Baina zer gertatu zen? Dena amets bat izan al zen? Ez dakit... baina beti oroituko naiz hainbeste lagundu zidaten izaki txiki haietaz.

Ipuinak

Bigarren taldea Saria



Hodei Murgizua

Natura eta kutsadura



Natura eta kutsadura

Udako oporretan Afrikako baso handi batean baziren Lanas izeneko katagorri iletsu bat eta Uzara izeneko enara beltz bat.

Egun batean Uzara larri gaixotu zen eta ia ezin zuen hegan egin. Lanas oso arduratuta zegoen eta nahiko beldurtuta, eta zer gertatu zen argitzera joan zen.

Basoaren ertzean lantegi bat zegoen, baina hesi batez inguratuta zegoenez Lanasek ez zekien zer egin. Orduan, bi gizon ikusi zituen lantegitik irteten kaxa batekin.

Bi gizonak atea zabalik utzi zutela konturatu zen Lanas, eta isil-isilik sartu zen barrura.

–Bai handia! –esan zuen Lanasek

Lanasek ate handi bat eta bertan zeuden lau zaindari ikusi zituen.

–Nola sartuko naiz? –galdetu zion bere buruari.

Orduan beste gizon bat etorri zen.

–Laguntza behar dugu sotoan –esan zuen gizonak.

Denak joan ziren, eta atean ez zenez inor geratu, Lanasek atea zabaldu zuen. Gelan botoi bat baino ez zegoen. Botoian “EZ” jartzen zuen baina Lanasek irrist egin eta botoia zapaldu zuen nahi gabe.

Orduan, sirena bat jarri zen martxan lantegian eta gizonak Lanas zegoen gelara joan ziren.

–Lagundu! –esan zuen Lanasek oihuka.


Orduan, basoko animalia guztiak Lanasi laguntzera joan ziren.

Animaliak konturatu ziren lantegiko kutsadura kanpora isurtzen zutela. Orduan leihotik sartu eta esan zien:

–Itzali makina edo bestela gorriak ikusiko dituzue!

Gizonak asko ziren baina animaliak askoz gehiago. Gizonak amore eman zuten eta makina itzali zuten.

Egun horretatik aurrera Uzara sendatu egin zen eta Lanak eta Uzara zoriontsu izan ziren.



Ipuinak

Hirugarren taldea Saria

U
M

**Koadroaren
begipeko malkoa**

Unai Martinez

Koadroaren begipeko malkoa

Bizitza oso gogorra da. Ondo hasi zen baina den-dena okertu egin da. Orain dela asko oso ospetsua nintzen, museoko koadrorik onena. Denak ni ikustera etortzen ziren. Baina, halako batean, jendeak etortzeari utzi zion. Eta ordutik aurrera, fama galtzen joan nintzenez, zakarrontzira bota ninduten.

Dendari batek topatu ninduen orduan. Bere dendara eraman eta saltzeko prest leihatilan utzi ninduen. Denbora asko pasa zen baina azkenean gizon bat nirekin interesatu zen. Bere egongelako pareta gorri eta zurian ipintzeko aproposa nintzela iruditu zitzaion. Eta etxera eraman ninduen.

Denbora askoz egon nintzen han baina handik urte batzuetara, bere ume txikia jaio zenean, mutiko txiki, bihurri, maltzur... hark guraizeekin moztu ninduen. Bere aitak sekulako errieta egin zion, baina ez zegoen atzera bueltarik.

Berriz ere zakarrontzian nengoen, gainera apurtuta, usain txarrarekin. Orduan, negarrez hasi nintzen. Baina orduan kaletik paseatzen zihoan emakume zahar batek hartu eta bere etxera eraman ninduen. Han ni konpontzen saiatu zen. Denbora asko behar izan zuen, baina azkenean lortu zuen eta nire begiaren azpian malko bat josi zuen, elkar ezagutu genuen egunaren oroigarri.

Orain, bere etxeko egongelako hormarik dotoreenean nago zintzilik. Poz-pozik.

Ipuinak

Hirugarren taldea Saria



**Basoko
sekretua**

June Arando

Basoko sekretua

Euskaldunen artean oso gutxitan gertatu izan dena baso kantari bat ezagutzea izan da. Kaixo ni Ana naiz eta baso kantariaren istorioa kontatuko dizuet. Baso honek Willburd du izena eta nire herrian dago.

“Egun batean eskolatik irten nintzen eta etxera joaterakoan kanta arraro bat entzun nuen; basotik zetorren. Hurbildu egin nintzen eta berriz entzun nuenez beldurtuta etxera korrika batean joan nintzen.

Hurrengo egunean lagunei kontatu nien baina ez zidatenez sinetsi nire gurasoei kontatzera joan nintzen. Beraiek ere ez zidatenez sinetsi lagunei erakustea erabaki nuen. Hurrengo goizean lagun guztiak kanta arraro hori entzutera joan ginen.

Basora sartu ginen eta han urtxintxa bat zegoen. Ikusi genuenean oso polita iruditu zitzaigun baina... hitz egiten zekien! Partxin zuen izena eta esan zigun basoak sekretu bat zuela, eta hori esanda, joan egin zen. Geroago, haize ahots batek esan zuen: “Basoko sekretua da...”

Zarata gero eta altuago entzuten zen. Azkenean, kostata, heldu ginen eta... zuhaitzak kantatzen ari ziren! Baso guztiak hitz egiten zuela konturatu ginen: txoriak, zuhaitzak, animaliak...

Ondoren nire aitari eta amari erakutsi nien; harrituta zeuden.

Hurrengo goizean basora joan nintzen, eta dena zientzialariz beteta zegoen!

Ni kuxkuxeatzera joan nintzen beraingana eta jakin nuen baso guztia

laborategira eraman nahi zutela ikerketak egiteko. Ni oso triste sentitu nintzen; ez nuen nahi animalia eta landare guztiekin ikerketak egitea. Orduan nire lagunei esan nien eta horren kontra jarri ginen: kartelak, paperak... Ezertarako ez. Orduan, hurrengo gauean arbolak eta animaliak nire etxera eraman genituen. Hurrengo goizean zientzialariak joan egin ziren zuhaitzak, etab. ez zeudelako. Zuhaitz eta animalia denak eraman genituen eta hortik aurrera denok lagunak izan ginen.”

Egun horretatik aurrera egunero-egunero animalia eta landareak bisitatzen joaten naiz.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Willburd basoan.

Ipuinak

Hirugarren taldea Saria



Eki Zuzeta

**Txutxe
wars**

Txutxe wars

Orain dela urte asko, galaxia urrun batean, Gozoki izeneko mutiko bat Gozoki Rebelioa izeneko planeta batean bizi zen. Gozokik ilea azukrez eginda zuen, begi urdinak zituen, bi zentimetroko sudurra, aho normala eta hanka luzeak. Oso jatorra eta eskuzabala zen. Gozoki oso pozik bizi zen.

Baina egun batean, Zapore Txarreko ejertzitoaren kulpaz gerra bat hasi zen. Gozokiren aitak eta amak kapsula batean sartu zuten Gozoki.

–Aita, ama, aita!!!! –esan zuen Gozokik.

–Lasai, laztana, beste planeta batean ondo zainduko zaituzte –esan zuen Gozokiren amak.

Gozoki bidaian triste zegoen baina azkenean planeta batera heldu zen. Planeta horretan gizontxo zahar, txiki eta berde batek hartu zuen bere etxean. Goda zuen izena eta esan zion:

–Nik indarra kontrolatzen irakatsiko dizut.

–Baina, nola? –esan zuen Gozokik.

Afaldu ondoren Godak Gozokiri teknika batzuk erakutsi zizkion. Egunak joan egunak etorri, Gozoki geroz eta indartsuagoa zen, nahiz eta batzuetan Godari kasu zipitzik egin ez. Hogei urte geroago Gozoki sekulako gerlaria zen.

–Prest zaude Zapore Txarreko ejertzitoaren aurka egiteko, Gozoki –esan zion Godak.

–Egia da maisu– erantzun zion Gozokik.

–Lagun batzuekin joango zara. E50-z-100, Cheumamut, Warbord eta ni.

E50-z-100 prisma antzeko robota zen, Cheumamut gorila baten antzekoa eta Warbord bizkarrean energia diskoa zuen 25 urteko mutila.

–Oraintxe bertan joango gara –Warbordek.

–Nola? –Gozokik.

–Grrr!!! (Lasai espaziuntzi bat dugu) –Cheumamutek.

–Ba, goazen oraintxe bertan.

Denak espaziuntzira sartu ziren. “Fiuuu!!!” egin zuen espaziuntziak. Azkenean heldu ziren Limoi transbordadorera. Denak espaziuntzi barrura sartu ziren eta han ikusi zituzten errege gaiztoak: Mikatz eta Garratz. Godak Gozokiri ezpata berezi bat eman zion: argi ezpata. Denak prest zeuden borrokatzeko.

–Limoi tximista –Mikatzek.

–Zirk-uitu txi-mista –E50-z-100ek.

–Grrr!! (baso blasterra) –Cheumamutek.

–Energia diskoa!!! –Warbordek

–Astopotroa, ergela, astakirtena!!! –esan zion Gozokik Garratzi. Mikatz hil egin zen eta haren aurka egin zuten hiru lagunak oso nekatuta zeuden. Goda eta Gozoki oraindik Garratzen aurka zebiltzan.

–Sustrai ostikada –Godak.

–Iluntasun bola –Garratzek.

–Argitasun ukabilkada –Gozokik.

–Ezpata fusioa –Godak eta bere ikasleak. Kolpe horrekin Garratz hil egin zen.

Gure heroiek Limoi transbordadorea apurtu zuten eta pozik bizi izan ziren betiko.

Ipuinak

Baugarren taldea 1. Saria



Miriam Moñux

Egunerokoa

Egunerokoa

2076ko uztailaren 24a

Gaurko eguna, berezia izango zen, gure eguna. Eta berarekin igaroko nuen...

Gaur ez da agertuko. Ez ditut bere aurpegi irribarretsua, ezta bere begi argiak ikusiko. Hirurogeita bat urte igaro dira eta ez dago zereginik. Ezin izango dut berriro ikusi.

Maria naiz. 76 urte dauzkat jada, eta oraindik ez dut lortu gertakizun hau gainditzerik. Horregatik nabil eguneroko hau idazten. Nire psikologoak esan didan bezala, azal urdineko liburu honetan idazteak, gertatutakoa hausnartzen lagunduko dit eta hobetoxeago sentituko naiz. Ahal dudan guztia egiten saiatuko naiz, baina egia esanda, nik ez dut uste horrelako zerbait inoiz hausnartu ahal izango dudanik.

Bizitza osoa, triste bizi izan dut. Hau da, familia bat daukat bai eta oso momentu politak bizi izan ditut nire senar eta hiru seme-alaben ondoan. Baina gaztea nintzenetik, hutsune bat sentitu dut nire barruan. Bihotzean, inoiz gelditu ez den etengabeko mina.

Dena, 13 urte nituela gertatu zen, Bergarara bizitzera etorri nintzenean:

Gogoan dut herri honetara etorri nintzen eguna. Nire bizitzako egunik zorionsuena izan zen, munduko herririk politena iruditu zitzaidan eta. Abuztu amaieran iritsi ginen nire gurasoak eta hirurok.

Lau hilabete lehenago, aita abokatu bufette bateko nagusia zen eta txalet

handi-handi baten bizi ginen amonarekin. Amona asko maite nuen eta niretzako, ama bat bezalakoa izan zen. Madrilen, oso ondo bizi ginen. Ni, eskola pribatu oso famatu batera joaten nintzen (neskatila pinpirinez beteta), eta amak astean bi armairu betetzeko moduko arropa mordoa erosten zuen. Eta bitartean aita lan eta lan, gure familia aurrera eraman eta amona alaitu nahian.

Baina egoera hura, aldatu egin zen amona hil zenean: Aitaren enpresa gero eta larriago zebilen eta azkenean, xentimorik gabe gelditu ginen. Hori zela eta, Bergarako apartamentu txiki batera etorri behar izan ginen bizitzera.

Amonak, ahal nuen gauza txikienekin bizitzen irakatsi zidan eta horri esker, ez nuen arazorik izan bizitzeko modu berri hartara ohitzeko. Baina ama... Ama, luxuzko bizimodura ohituta zegoen eta ez zen batere pozik gelditu.

Lehenengo eskola egunean, oso urduri nengoen. Nire lehen eguna zenez, tutoreak ikasgelarako bidea erakutsi behar izan zidan. Ohitu beharra neukan. Bergara ez zen Madril. Egun hartan ez nuen lagunik egin. Ni neu izaten saiatu nintzen baina alferrik. Gainera, beste arazo bat neukan: ez nekien euskaraz. Madrilgo eskolan, inoiz ez nuen euskaraz ikasi, beraz, ez nuen ulertzen ikaskideek esaten zutenaren ezer.

Baina bigarren egunean, neska bat ezagutu nuen. Oso neska jatorra zen, eta eskola bukatu genuenean, niregana hurreratu eta ea euskarazko klaseak jaso nahi nituen galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion eta arratsalde hartan bertan, euskaraz ikasten hasi nintzen jo ta ke.

Nagore (hori baitzen neskaren izena), oso neska alaia, jatorra eta errukiorra zen. Irakasle oso ona gainera. Baina, nik bezala ez zeukan lagunik. Ez nuen hori ulertzen, oso pertsona ona baitzen. Horrelako pertsona zoragarri batek lagun zoragarriak eduki beharko lituzke. Ez da horrela? Hala ere, denbora gutxian nire lagunik onena bilakatu zen.

Hilabete batzuk geroago, dena batera egiten genuen. Beti elkarrekin geunden eta ez ginen segundo batean ere banatzen. Ez genuen beste lagunik, Nagore eta biok bakarrik (inork ez baitzuen gure lagun izaterik nahi).

Nagorek euskarazko klaseak ematen zizkidan bitartean, matematikekin laguntzen nion. Azkenean, euskaraz hitz egiten ikasi nuen, eta kurtsoa aurrera atera nuen, emaitza oso onak lortu arte.

Baina txarrena, udan gertatu zen. Ama ez zen ohitu bizimodu berri honetara eta aitari dibortzioa eskatu zion. Ni aitarekin geldituko nintzen eta ama, Madrilera bueltatuko zen. Dibortzio prozesuak uda osoa iraun zuen eta bitartean nik, Nagoreren aiton-amonen hondartzako etxean pasa nuen uda. Han, nire urtebetetzea gurasorik gabe pasa behar izan nuen baina, behintzat, Nagore eta bere aiton-amonekin nengoen. Nagore eta bion 14. urtebetetzeak batera ospatu genituen, uztailaren 24an. Hura izan zen gure eguna. Nire bizitzako udarik onena.

Bizitza aurrera zihoan eta aitak lan mordoa egiten zuen. Horrenbestekoa izaten zen aitaren okupazioa, batzuetan egun osoa kanpoan igarotzen baitzuen, lan eta lan. Gauzak asko aldatu ziren orduan. Batez ere, etxeko bizimodua.

2076ko uztailaren 25a

Gero eta errazagoa egiten zait hitz hauek idaztea. Hau dena gogoratzean, lehen neukan mina desagertzen hasi zait:

Nagore eta biok ere aldatu egin ginen. Bi neska ikustezin izatetik, eder eta ezagunak izatera iritsi ginen. Eskolan geundenean, begirada guztiak erakartzen genituen. Baita beste nesken begirada bekaiztiak ere. Batez ere, Ainara eta bere lagunak mespretxuzko begiradak. Hobe beraiei kasu ez egitea.

Baina gure egoera, berdina zen. Betiko neska alai eta lagunkoiak ginen, nahiz eta jendeak hori ez jakin.

Egun batean, zerbait aldatu zen. Nagoreren etxean geunden etxeko lanak egiten eta bere jarrerak zerbait arraroa sumatu nuen. Urduri zegoen, eta ez nekien zergatik. Ea zer gertatzen zitzaion galdetu nion. Eta kontua da, norbaitek nota anonimo bat bidali ziola. Papertxo zimurtu hura eman zidan, eskuz idatzia:

Kaixo Nagore,

Ba al dakizu nor naizen? Ez dut uste baina hala ere, zerbait esango dizut:

Zure bizitza hondatuko dut!

Paper hura irakurri nuenean barrezka hasi nintzen. Nagoreri ez larritzeko esan nion. Paper hura bromatxo bat besterik ez zela eta bera ere, lasaitu egin zen. Baina eman nion aholku hark, arazoak besterik ez zizkion ekarri.

2076ko uztailaren 27a

Hau idazteak lasaitzen nauen aldi berean, mindu egiten nau. Orain ulertzen dut psikologoak esandakoa:

Nagore eta biok gero eta ospetsuagoak egin ginen ikastolan. “Eskolako neskarik politenak” ginela esaten ziguten eta lagun gehiago egin genituen. Agian geure itxura aldatu zen, baina izaera, berdina zen. Ez ginen batere aldatu baina orain behintzat, ez genituen beste ikaskideen irainak entzun behar.

Eskolako egoera hobetzen zihoan heinean, etxeko egoera behera eta behera zihoan. Ez nuen aitarekin hitz egiten, ez nuen egun osoan ikusten eta ia egunero Nagoreren etxean lo egiten nuen. Jada ez neukan ez amarik, ez aitarik. Biak, diru kontuengatik desagertuak. Behintzat, Nagore ondoan neukan eta horrela izango zen betiko. Edo behintzat, hori uste nuen.

Nagore desberdin jokutzen hasi zen. Ispilura gehiegi begiratzen zuela iruditzen zitzaidan batzuetan. Lehen zikin eramaten zuen ile motza, orain melena luze eta distiratsua zen. Lehen eramaten zituen betaurreko gorri handiak, lentilla batzuegatik aldatu zituen. Eta lehen eramaten zituen arropa koloretsu haiek, mundu guztiak eramaten zituen arropa normalengatik aldatu zituen. Niri gustatzen zitzaizkidan gauza haiek guztiak, eskolan ezagunago izateagatik aldatu zituen.

Beste egun batean, Nagore inoiz baino asaldatuago iritsi zen nire etxera. Beste nota bat jaso zuen:

Kaixo berriro ere Nagore,

Egin nizun promesa beteko dut. Zure aitaren istorioa dakit, istorio osoa eta lehenago edo beranduago, ikaskide guztiek jakingo dute. Ez zara honetatik libratuko.

Hau irakurtzerakoan ez nuen nire harridura ezkutatu. Zer esan nahi zuen horrek? Zer gertatu zitzaion bere aitari? Gainera aiton-amonekin bizi zen. Inoiz ez nion nire buruari galdetu baina, gurasorik ba al zuen?

Nagorek nire harridura sumatu zuen eta istorio osoa kontatu zidan:

Zirudienez, bere aitak, arazo psikologikoak izan zituen gaztetan, baina tratatuak zeuden. Neska batekin ezkondu, eta haur bat eduki zuten, Nagore bera. Gizon hark, banketxe batean egiten zuen lan baina dena aldatu zen. Nagoreren aita banketxetik bota zuten. Familia mantentzeko zituen zailtasun guztietan pentsatzen hasi zenean, eroaldian erori zen. Eskopeta hartu, eta banketxera abiatu zen mendeku bila. Tiroka sartu zen bertan, eta bere onera itzuli zenean, jende asko hilda zegoen, bere emaztea barne, dokumentu batzuk jasotzera joan zena. Aita, zoroetxean sartu zuten eta Nagore, aiton-amonekin eramán zuten. Harrez geroztik, Nagore sekretu hura ezkutatu nahian izan da.

–Ez daukazu lotsatu beharrik –esan nion Nagoreri kontsolatu nahian.

–Nola ezetz? Denek barre egingo didate!

–Noiztik inporta izan zaizu beste batzuek pentsatzen dutena? –galdetu nion gero eta haserreago.

–Eskolan famatuak garenetik!

–Ba ez zaitut ulertzen! Lehen lagun on bat edukitzea bakarrik inporta zitzaizun!

–Baina zu ez zara lagun mina! Lagun minek lagundu egiten diote elkarri eta zu ez zabilta horretan!

Hitz haiek entzun, eta bultzaka, etxetik bota nuen.

2076ko uztailaren 28a

Ez. Ez nintzen lagun ona izan. Lagundu egin behar nion eta ez nuen ezer egin:

Nagoreri azkar ahaztu zitzaion gertatutako guztia. Beste neska batzuekin irteten hasi zen. Ainara eta bere koadrilakoekin. Nik bitartean, nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena galdu nuen. Jada ez neukan ezer. Aita ez zen etxera etortzen eta Nagore haserre zegoen nirekin. Hori bai, ez nion gainetik begirik kentzen. Denbora guztian, momentu haren zain. Niretzako bakarrik izango zen momentu haren zain.

Eskolara iritsi nintzen egun batean, momentu hura iritsi zela konturatu nintzen. Ikaskide guztiak txutxu-mutxuka zebiltzan, eta Nagore ez zegoen bere mahaian eserita edo Ainararekin hitz egiten beti bezala. Ez. Egun hura ez zen arrunta izan. Eskutitz baten fotokopia zegoen nire kaxoian, beste guztien kaxoietan bezala eta bertan nik nekien istorioa kontatzen zuen, Nagoreren familiarena.

–Ez al duzue pentsatzen hori genetikoa izan daitekeela? –entzun nion esaten nire ondoko neska bati –Izan daiteke, Nagore bere aita bezalako zoroa izatea!

Zurumurru hori eskola guztitik zabaldu zen eta lehengo Nagoreren aurpegi alaia, begi zulodun aurpegi triste bihurtu zen. Gehienetan ez zen eskolara etortzen eta etortzen bazen, itxura atsekabetuarekin ikusten ziren. Behin, pijama eta guzti etorri zen. Nagore oso gaizki zegoen. Inork ez zuen bere ondoan eseri nahi eta nik egiten nuenean, berak alde egiten zuen.

Kezkaren kezkaz nengoen eta ni zaintzeko inor ez zegoenez, askotan ez nuen gosaldurik, bazkaldu edota afaltzen ere. Nire osasuna ere jaisten hasi zen eta indar gabe igarotzen nuen eguna.

Egun batean, azkeneko hilabeteetan ikusi ez nuen irribarre bat sumatu nuen Nagoreren aurpegian. Paper bat zeukan eskuan eta begirada alaiz begiratzen zuen txuri koloreko papertxo hura. Eskola bukatu zenean

korrika irten zen gelatik, eta papertxo a lurrera erori zitzaion.

Arratsaldeko zazpian, parkean.

Zure mireslea.

Han agertu nintzen ni arratsaldeko zazpian eta zuhaitzen atzean ezkutatu nintzen. Negua zen, eta dena oso ilun zegoen baina Nagore ikusten nuen belarretan eserita, zain. Bat-batean, ez dakit nondik baina, pertsona bat korrika urreratu zen Nagorerengana. Makila bat zeraman eskuan, eta Nagore jotzen hasi zen. Nire laguna larrialdi hartan ikustean, korrika joan nintzen laguntzera, eta pertsona misterioitsuak alde egin zuen. 112ra deitu, eta han itxaron nuen, Nagore lurrean botata zegoen bitartean.

Ospitalean geundenean, Nagore tratatu egin zuten. Aurpegia zauriz beteta zeukan eta eskuineko besoa eta ezkerreko hanka hautsita. Ezin nuen nire laguna horrela ikusi. Esnatu zenean, ahots goibelez, hitz bat besterik ez zuen esan:

–Eskerrik asko.

Negarrez, alde egin nuen handik. Ezin nuen Nagore horrela ikusi. Eta ospitaleko korridoretik nindoala, bat-batean zorabiatu eta konortea galdu nuen. Medikuek nire inguruan besterik ez ditut gogoratzen.

2076ko uztailaren 29a

Ospitaleko ohe batean esnatu nintzen. Medikuek bat nire ondoan zegoen isil-isilik. Begietara zuzen-zuzen begiratu ninduen, eta azkenean, ez jatearen ondorioz defentsak oso baxu neuzkala esan zidan. Aste oso bat ospitalean igaro beharko nuen, zerbait jaten nuela ziurtatzeko. Baina nik ez nuen jan nahi, nire laguna ikusi beharra neukan. Ondo al zegoen jakin nahi nuen. Baina ez nekien ezer, ezer ere ez.

Aste oso bat igaro zen eta alta eman zidaten ospitalean. Espero nuen bezala, ez zen inor etorri ni bisitatzen. Aita oso lanpetuta ibiltzen zen, eta seguruenik, ez zuen denborarik izan ni bisitatzen.

Handik irten eta Nagoreren etxera joan nintzen zuzenean. Bere amonak zabaldu zuen atea. Besarkada handi bat eman zidan.

–Ondo al zaude Maria? Ez dugu zu bisitatzeko denborarik eduki. Barkaiguzu –esan zidan Milak kezkatuta.

–Lasai, Mila. Ondo nago.

Nagore komunean zegoen eta han itxaron nuen, etxeko egongelako sofan eserita. Ordu laurdena igaroa zen, baita ordu erdia ere, baina Nagore ez zen irteten. Kezkatzen hasita nengoen eta poliki-poliki, komunerako bidea hartu nuen. Atea zabaldu eta han zegoen, bainugela handi haren lurrean botata, Nagoreren gorpu hila. Lurretik biraka, Nagoreren amonaren pilulak zeuden. Bere buruaz beste egin zuen. Han gelditu nintzen, inoiz baino geldiago. Ez nekien zer egin. Orduan, berriz ere, konortea galdu nuen.

Lehenago egondako ospitale berberean esnatu nintzen, baina oraingoan, familia eta lagunez inguraturik. Han zeuden aita eta Nagoreren aiton-amonak. Momentu hartan inoiz baino poz handiagoa sentitu nuen. Baina bat-batean, Nagore etorri zitzaidan gogora eta negarrez hasi nintzen. Aiton-amonak nire ondoan eseri ziren negarrez. Orduan Nagoreren amonak, gutun bat eman zidan. Gutunazalean nire izena jartzen zuen. Nagorek idatzitako eskutitz bat zen. Baina ez nuen zabaltzeko adorerik izan.

Ikaskide guztiengan konfiantza galdu nuen. Banekien eskolako norbait izan zela Nagoreren heriotzaren arduradun. Baina ez nekien nor zen. Horregatik, eskolara bueltatu behar nintzen egunean oso goibel eta babesik gabe sentiturik irten nintzen etxetik. Baina espero nuenaren kontrakoa gertatu zen. Neska-mutiko guztiak oso atseginak izan ziren nirekin. Asko lagundu zidaten. Baina Ainara eta bere lagunek, berdin jarraitzen zuten. Begirada bekaizti haiek...

Bi aste geroago, adorea irabazi nuen berriz ere. Seguru nengoen nitaz eta Nagoreren eskutitza irakurtzea erabaki nuen. Han zegoen oraindik, mahai gainean, inoiz norbaitek zabaltzeko zain. Hartu eta gutunazala zabaldu nuen:

Maria maitea,

Biok dakigu zein den eskutitz honen zergatia. Barkaidazu, oso koldarra izan naiz, baina ulertu nazazu, ezin dut gehiago. Puntu honetara iritsi ondoren, bizitzeko gogoa galdu dut eta espero dut nire erabakia zuk ulertu eta errespetatzea.

Barkaidazu, arrazoi zenuen. Boterea burura igo zitzaidan eta horregatik galdu zaitut. Ez dago atzera bueltarik

Zerbait aitortuko dizut. Zu izatea nahiko nuke eta zure indarra izan. Ni ahula izan naiz eta azkenean etsi egin dut, baina zu gogorra izan zara. Ez duzu inoiz etsi eta espero dut horrela jarraitzea. Ez zaitetz aldatu mesedez, zarenagatik maite zaitut eta eskerrik asko ni zaintzeagatik benetan.

Baina azkeneko eskari bat egingo dizut. Saiatu zaitetz, nire egoeraren erruduna aurkitzen mesedez. Saiatu zaitetz ahal duzun guztia egiten mesedez.

Eskerrik asko denagatik. Zure laguna,

Nagore

Negar baten hasi nintzen eta horrela eman nuen gau osoa, pentsatzen eta negar egiten. Pentsatzen eta pentsatzen. Nola aurkituko nuen erruduna? Noski ba! Kaxoian utzi zidaten eskutitza!

Paper guztien artean bila ibili nintzen denbora luze batean eta azkenean, topatu nuen paper madarikatua, ximur-ximur eginda. Eskuz idatzia zegoen eta ez zen zaila izango erruduna aurkitzea. Nola ez zitzaidan lehenago okurritu?

Hurrengo egunean, tutoreari istorio osoa kontatu nion eta momentu ez oso atsegina igaro ostean, gelara bueltatu ginen. Irakaslea Nagoreri buruz hitz egiten hasi zen. Oso momentu gogorra izan zen denontzat eta azkenik, denoi, Nagorerengatik zer sentitzen genuen erakusten zuen eskutitz bat idazteko eskatu zigun. Horrela izan genuen aukera letra motak konparatzeko. Erruduna aurkitu genuen.

Horren ostean, irakasleak Ainarari deitu zion. Bera izan zen, Ainarak bidali zizkion gutunak Nagoreri. Ainara izan zen, parkean joka ibili zena. Zirudienez, Nagorek neska lirainaren postua kendu ziola pentsatzen zuen

eta, inbidiaz berde jarri eta eskutitz haiek bidaltzen hasi zen. Azkenean gaia eskuetatik joan zitzaion. Eta horrela bukatu zen nire lagunaren istorioa, mendekatua.


Haren ondoren, inork ez zuen Ainara berriz ikusi. Batzuek etxez aldatu eta beste herri batera joan zela esaten zuten, hemendik oso urrun.

2076ko uztailaren 30a

Dena ulertu dut, Nagoreren beldurra ulertu dut eta hausnarketa sakon honen ondoren, hirurogeita bat urte beranduago, askoz hobeto sentitu naiz. Bihotzeko min iraunkor hori, eza bihurtu da eta neure buruarekin lasai nago. Zulo handi hori, ixten hasi da.

Ipuinak

Baugarren taldea 2. Saria



Jone Jauregi
Irati Arantxabal
Irati Gardoki

**Inork ez zuen esan
erraza izango zenik**

Inork ez zuen esan erraza izango zenik

Nire izena Elisa da, 22 urte ditut eta Euskal Herriko herri txiki batean bizi naiz, Aiherran. Nire denbora librean musika entzutea eta korrika egitea gustatzen zait, baina noizbehinka, aiton-amonen baserrira joaten naiz lan batzuk egitera. Burumakur joan arren beti irribarre batekin itzultzen naiz etxera.

Orain nire bizitzako zatirik gogorrenetarikoa bat kontatuko dizuet beti gogoratuko dudana eta nire egunerokoan idatzita izango dudana.

Egun ilun eta euritsu bat zen. Euri tantak nola erortzen ziren begira nengoen nire logelako leihotik. Bat-batean nire ama entzun nuen norbaitekin telefonoz hizketan. Kezkatzen hasita nengoen, arraroa egin zitzaidan ama gaztelaniaz hitz egiten egotea. Zer dela eta telefono dei hura igande arratsalde hartan?

Gauean, telefono deiek jarraitzen zuten, beste zerbaitetan pentsatzen saiatzen nintzen baina ezinezkoa zen. Azkenean, nire liburu gustukoena hartu eta irakurtzeari ekin nion.

Txirrin zarata nazkagarri batek esnatu ninduen astelehen goiz hartan. Eskolan nengoela, nire gurasoak ikusi nituen zuzendariarekin hitz egiten eta telefono deia etorri zitzaidan burura.

Gauean, afari goxo bat dastatzen geundela, tentsioa nabaritu nuen hiruron artean, zerbait esan behar zidatela ematen zuen eta hala izan zen.

Gurasoek sekulako berria eman zidaten: beste ahizpa bat izan behar nuela eta ez zela hemengoa izango. Nire gurasoek esandakoarekin harrituta geratu nintzen. Adopzio bat? Hori zen esan nahi zidatena?

Une horretan hitzik gabe geratu nintzen eta negar batean gelara joan nintzen ez nuelako ulertzen esaten ari zirena. Gauean buruari buelta asko eman nizkion eta nire jarrera gurasoekiko ez zela egokia izan pentsatu nuen. Horregatik, hurrengo goizean amarengana joan nintzen eta esan nion astiro-astiro azaltzeko aurreko gabean esandakoa. Denbora asko egon zen hizketan. Handik astebetera iritsiko zela esan zidan, hau da hurrengo astelehenean etorriko zela Saharatik, 7 urte zituela eta Aisha zuela izena.

Aste hura ez zen erraza izan. Ez nintzen eskolara joan adopzio kontuengatik. Galdera ugari egiten nizkion neure buruari. Nolakoa izango da? Onartuko al dute? Harreman ona izango al dugu?

Astelehen goiza iritsi zen, nire gurasoen joan etorriek eta urduritasunak esnatu ninduten. 8:12 ziren eta 9:00etarako Bilboko aireportuan egon behar ginen.

Heldu zen nire ahizpa berria ezagutzeko eguna, ikusteko irrikan nengoen. Beltzarana zen, ile kizkurra zuen, ikatza bezain beltza, begi berdeak zituen mahatsa bezalakoak, eta ahots goxoa zuen. Beldurra eta lotsa nabaritzen zitzaizkion aurpegian, baina ez nuen hitz egin nahi izan. Nire gurasoekin hizketan ikusten nuen eta amorrua sentitzen nuen.

Asteak igaro ziren, ez nuen ikusi nahi, ezta hitz egin ere. Ezberdina zen, niretzat arraroa. Nire gurasoak kezkatuta eta haserretuta zeuden nirekin, egun osoa gelan igarotzen nuelako ezer egin gabe, ohean etzanda pentsakor.

Gurasoek denbora guztia Aisharekin igarotzen zuten eta ez zidaten kasurik egiten. Munduan bakarrik sentitzen nintzen, nire lagun bakarra liburua zen.

Ezin nuen gehiago jasan, amarengana joan nintzen eta barruan nuen guztia askatu nion beldurrik gabe:

–Ama! Ezin dut gehiago, ez nauzue kontuan hartzen eta Aisha da axola zaizuen bakarra.

–Hori ez da horrela maitea!

–Zertarako etorri da? Niri mina ematen besterik ez dabil eta bere erruz lagun denak galdu ditut.

–Pasatzen ari zara, berak ez dizu ezer egin eta zure beharra du.

–Ez nago ados ama, ez dut nahi berarekin egon, ez du ezertarako balio!

Negar malkoak entzun nituen atearen beste aldean. Aisha zen, dena entzun zuela ematen zuen, baina momentu hartan ez nion garrantzi handirik eman eta ohera joan nintzen.

Aste batzuk igaro ostean, Aisha etorri zitzaidan nirekin hitz egiteko asmoz. Hasiera batean bakean uzteko esan nion, baina negarrez hasi eta bere logelara abiatu zenean, etortzeko esan nion. Denbora asko igaro genuen hizketan eta hainbat gauza esan zizkidan. Momentu batean harrituta utzi ninduen, lagunak egiteko eta zoriontsu izateko bere aukera bakarra nintzela esan zidanean. Besarkada handi batekin eskertu nizkion esandako hitzak eta negar batean hasi ginen emozioz.

Hurrengo asteetan nire lagunei dena kontatu eta denon artean pentsatu genuen egun batzuetan gurekin ibiltzea izango zela hoberena berarentzat, niretzat eta denontzat. Berari esan nionean, asko eskertu zidan eta hauek izan ziren esan zizkidan hitzak: “Elisa, ezagutu dudan ahizparik onena zara!”

Gure arteko harremana asko zabaldu zen eta oso ondo pasatzen genuen elkarrekin. Amak izugarri eskertu zidan egindakoa, eta oso harro zegoela esan zidan.

Inork ez zuen esan nire bizitza erraza izango zenik. Iraganera begira jartzen naiz eta gauza asko etortzen zaizkit burura.

Aisha gaizki tratatu nuen, arraroa izan balitz bezala. Urteekin ohartzen joan naiz hori ez dela horrela eta kasu honetan nahiz eta beltzarana izan guztiok ditugula sentimenduak, familia, lagunak...

Suerte daukat Aishak egin diodan min guztia barkatu izana. Ez da erraza barkatzea esan diodan guztia, baina horrela konturatu naiz maite

nauela eta pertsona ona dela. Ohartu naiz bizitza honetan denok berdinak garela eta aldi berean ezberdinak, nahiz eta beltzarana, zuria edo ile horikoa izan.

Orain Aisharekin oso ondo moldatzen naiz, lagun bat bezala da niretzat eta beti batera gaude. Berak orain 15 urte ditu eta nik 22, laguntza behar duenean beti egoten naiz prest. Orain nire ahizpa txikia bezala onartzen dut eta garrasika esango nuke mundu osoarentzat: “Maite zaituuuut!!!”

BETIDANIK IZAN EZ BADA, BETIRAKO IZAN DADILA!

Ipuinak

Baugarren taldea 3. Saria



Jane Agirre

**Begiak
itxi ditzala
horrela ez nauenak gustuko**

Begiak itxi ditzala horrela ez nauenak gustuko

Maggie naiz eta 22 urte bete berriak ditut. Bergaran bizi naiz pare bat lagunekin eta ASPACEn lan egiten dut. Sorbaldetara iristen zaidan ile kizkurra daukat eta argala naiz. Bereztasun txiki bat daukat ordea; eskumako eskuko hatz lodia motzagoa daukat. Moztu egin zidaten auto-istripu baten erruz. 6 urte nituen hori gertatu zenean, beraz ia bizitza osoa daramat hatz moztu honekin.

Edozein motatako irainak jaso izan ditut eskolan, eta negar asko egin dut horregatik. Lehen errua aitari botatzen nion, aurretik auto bat zetorrela ez ikusteagatik, eta edozein motatako gauzak egin izan ditut jendeak nire hatza ikusi ez dezan. Lagunekin udalekutara joatean adibidez, eskua bendatzen nuen esgintze bat nuela esanez.

Ondo gogoratzen dut egun hura. 2008ko apirila zen eta berriro ere, gelako mutil batzuk nirekin sartu ziren. Teknologia klasean geunden eta tailerrera igo ginen proiektua egiteko asmoz. Hatza motzegia nuenez, ezin nituen gauzak ondo egin. Idazterakoan ez nuen arazorik ezkertia nintzelako, baina beste gauza batzuk egiteko ez nuen gaitasunik.

Eskolatik irtetzerakoan, lagunei medikua nuela esan nien, bakarrik egon nahi nuelako nire auzoan dagoen eta hain polita den parkean. Goiko banku batean eseri nintzen eta ia konturatu gabe, malkoz busti zitzaidan aurpegia. Minutu gutxi batzuk igarotzean, mutil bat agertu zen eta niregana zetorrela ikusi nuen. Malkoak sikatu nituen eta nire ondoan eseri zen irribarre handi bat eskeiniz. Beltzarana zen eta ni baino nagusiagoa zela ematen zuen.

–Kaixo, nor zara? –galdetu nion.

Baina ez nuen erantzunik jaso. Begira geratu zitzaidan ezertxo ere esan gabe.

–Nor zara? –errepikatu nion.

Oraingoan belarria seinalatu zuen gorra zela adieraziz. Orduan aurreko urtean klasean egin genuen gorrei buruzko tailerraz gogoratu nintzen. Ahal nuen moduan galdetu nion ea zergatik eseri zen nire ondoan. Irribarre handia agertu zen bere aurpegian eta nik ere barre egin nuen, tximino motaren bat emango nuela konturatu nintzelako keinu horiek eginez.

Hassan zuen izena eta arratsalde osoa pasa genuen hizketan. Nire arazoa azaldu nion eta mutil hark begiak zabaldu zizkidan. Berak ezin zuen entzun, ezta hitz egin ere, eta oso zoriontsua zela nabari zen, eta nik berriz negarrez pasatzen nituen egunak hatz zati baten faltagatik.

Orduan konturatu nintzen inor ez dela perfektua, bakoitza den modukoa dela, eta garrantzitsuena, geure burua onartu behar dugula gure akats guztiekin. Ez, agian ez dut denok daukazuen hatz zati hori, baina zatitxo hori ipiniko banu, ni neu izateari utziko nioke.

Egun hartatik aurrera Hassan eta ni oso lagun onak egin ginen eta gaur egun, domekero elkartzen gara kafea hartzeko. Gainera bere alaba Yasmin zaintzen dut ASPACEn. Oso neska argia eta ederra da eta bere aita bezain alaia eta bihotz onekoa.

Ipuinak

Bosgarren taldea 1. Saria



Mikel Babiano

Laboratorium Chemicum

Laboratorium Chemicum

Huginn ok Muninn
fljúga hverjan dag
Jörmungrund yfir;
óumk ek of Hugin
at hann aftr né komi-t,
þó sjámk meir of Munin.

Hugin eta Munin
egunero hegaldatzen dira
munduaren inguruan;
ez nau kezkatzen Hugin
nigana itzuliko ote den,
bai ordea Muninek.
(Grímnismál)

Ezin zuen loak hartu. Nekatuta zegoen, eta bazekien hurrengo eguna luzea izango zela, bazekien behingoagatik atsedeen hartzea komeni zitzaiola, bazekien mugikorreko alarmak bost ordu eta hamazazpi minutu barru joko zuela, zazpiak eta laurdenetako busa hartu beste erremediorik izango ez zuela, hori guztia eta askoz gehiago zekien, baina ezin zuen loak hartu. Ohean alde batera eta bestera mugitzen ahalegindu zen, arditxo zuriak eta beltzak zenbatu zituen eta sabela maitekiro ferekatu zuen, bere burua lasaituz azkarrago lokartuko zelakoan. Baita zera ere! Lokartu ezinak bere urduritasuna areagotzen zuen.

Milurtez milurte mundua estali duten lur-geruzak nola, bere pentsamenduak bata bestearen gainean pilatuz zihoazen, eta berriek zaharragoak irensten zituzten, prozesu amaigabeen batzuen zein besteen material geologikoa nahasteraino. Aneren burua izugarrizko anabasa zen, neska lasai bezain arrazionala ezagutzen zuen edonor une hartan harrituko zukeena. Isil samarra zen, hitz egiterakoan ere modu egituratu eta pausatuan aritzeko joera duten horietakoa, baina une hartan urduri baino urduriago zegoen, ezin baitzituen kimika irakaslearen hitzak ahaztu, ezta artean egin gabeko etxeko lanak eta ikerketa-lanen nondik norakoak ere. Gainera, lehenbailehen lokartu behar zuen, hurrengo egunean neka-neka eginda egon nahi ez bazuen.

Urduritasuna amorrazioarekin batera nahasten zitzaion, estimulu fisiko guztiak bere buruaren aurka matxinatu bailiren. Horrela sentiarazten zuena ez zen, ordea, pentsamendu gorien sumendia, beroriek nahierara azpiratu eta maneiatu ezina baizik. Enegarren aldiz, begiak itxi eta laku urdin bat irudikatu zuen, Arkimedesen printzipioak beteko zituen laku urdin eta perfektu bat. “Dena ondo dago, dena ondo dago” xuxurlatu zuen. Orduan, bere buruari agindu zion behingoz, behingoz, behingoz lokartzeko. Bat, bi, hiru... Alferrik. Etsi-etsian, ito nahi zuten burusiak brastakoan baztertu eta salto batez jaiki zen.

Gela pospolo-kaxa bezain txikia zen. Oheak, bere erraietatik egotzi zuen burusi eta izarazko munstroak, alde bat hartzen zuen oso-osorik. Haren ondoan idazmahaia zegoen, eta, metro eta erdi ezkerrerago, gelako

iluntasunean ezin hobeto kamuflaturik, egurrezko armairu izugarri bat. Hain zen handia armairu hura, ezen ahoa ireki eta tupustean mundu osoa irentsiko zuela baitzirudien, edota aurrez aurre zuen ohearen aurka une batetik bestera oldartuko zela. Alabaina, bi erraldioen arteko gudarik izatekotan, ezinezkoa zen berau noiz hasi eta amaituko zen jakitea, ez eta, bazterreko uharte hartan elkartu zituen patu misteriotsua tarteko, biak ala biak leku hartako zaindari sorginduak ez ote ziren igartzea ere.

Izanak izan, Anek ez zuen gela hartan inongo titan edo leviatanik ikusten, ez zen itzalen beldur eta, oroz gain, ez zuen sorginkeria, patu eta enparauetan sinesten. Berarentzat, erreakzio fisiko eta kimikoen araberrako elementu aldagarria besterik ez zen mundua, elementu konplexua, baiki, baina bere gizartean etengabekoak ziren aurrerapen zientifikoei men egin eta matematikaren hizkuntza ezagutuz gero ekuazio sinple baten bidez adierazteko modukoa. Ez al zuten Newtonek, Einsteinek eta Hawkingek antzeko lorpenik erdietsi? Ez al ziren Alexandriako Hipatia, Emmy Noether eta Marie Curie horrelakoen alde borrokatu? Ez al zegokion berari ere horiek guztiek urratua zuten bideari eustea?

Logale egon arren, begirik bildu ezin. Idazmahaiaren aurrean eseri eta zientziaren unibertso miresgarria ikertzeko baliatzen zitzaion gaulanparatxo kuttuna piztu zuen. Segundo batetik bestera, argiaren uhinak gelako txoko guztietaraino hedatu ahala, ilunpeen altzoan gorpuztuak ziren begibakar, jentil eta gainerako izaki beldurgarriak berehala ezkutatu ziren, eta beste zenbait xehetasun azaleratu. Esate baterako, linoliozko zorua estaltzen zuten liburu potoloak, armairuko trepetak eta flakoak, mila koloretako likidoz eta harriz beteak, hormako Mendeleeyev taula periodikoa eta irudi bitxiak, urte koloreko markodun ispilu handia, bazter bateko kuxinen gainean kiribilduta zetzan katutzarra, karpeta, koaderno eta liburuak idazmahaiaren gainean...

Laborategia zirudien gela hark, jakintza gose aseezina zuen azti modernoren baten gordelekua, noizbait espazioko plazara zabalduko ziren asmakuntza jaiogabeen ernamuina. Hala ere, bada gauza bat lanparako bonbilla miresgarriak beste guztien gainetik nabarmendu nahi izan zuena:

Aneren begi urdinak, maiestatikoki eta miresmen poxi batez, artean akaso sinesgogor, Bergarako pisu hartan egunez egun, astez aste, hilabetez hilabete eraikia zuen erreinu txikia begiztatzen zuten begi urdin-urdinak.

“Kaosa menderatu eta mundua ulertzea, horra hor bilaketa betierekoa, natura moldatzeko gai garenetik gizakiok erdietsi nahi izan duguna” pentsatu zuen, patxadaz, neska gazteak. Beirazko bonbillari erreparatu zion, haren baitan diz-diz egiten zuten wolframezko hariei, eta irribarrea loratu zitzaion. “Bide luzea dugu egiteke, baina neurri handi batean lortu dugu, bai jauna”. Harro zegoen bere buruaz, harro gizadiaz, harro zientziatz. “Zer esango lukete Luxor eta Karnakeko faraoi zaharrek, Amon-Re jainko ahaltsua metalezko kaiola txiki batean preso dugula jakingo balute? Zer, Scheherezadek eta Shahriar sultanak, lanparako jeinua zinez existitzen dela eta gure esanetara dagoela jakingo balute? Zer, Midas erregeak eta Erdi Aroko alkimistek, gaua urre bihurtu dugula jakingo balute?”.

Horrelako pentsakizunak zerabiltzan Anek, hainbeste maite zituen fisika, kimika eta matematikari buruzkoak. Azken finean, haiei zor zizkien izena eta izana, Donostian eta Parisen egin zituen ikasketak, Stockholmen ikerketa-beka bati esker igaro zuen bolada ezin ederragoa, Bergaran hasi berria zuen masterra. “Erreakzio fisiko eta kimikoen araberrako elementu aldagarria besterik ez da mundua, matematikaren hizkuntzari esker ekuazio sinple baten bidez adierazteko modukoa, ekuazio sinple baten bidez adierazteko modukoa, ekuazio sinple baten bidez” errepikatzen zuen ukondoak idazmahaiaren gainean bermatuta zituela, buruari eskuineko eskuaz eutsiz, begiak erdi itxita. Inoiz baino lasaiago eta zoriontsuago sentitzen zen. Kontrolpean zuen bizitza, kontrolpean bere burua, kontrolpean minutu batzuk lehenago matxinatu zitzaizkion pentsamendu errebeldeak.

“Tira, zer edo zer idatzi beharko dut, bada”. Bonbilla alde batera utzi eta aurrez aurre zuen orri zuriari behatu zion. Kimika irakasleak wolframari eta haren aurkitzaileei buruzko testu labur bat idazteko agindu zien ostiralean; hasieran eginkizun erraza zela iritzi arren, egitekoa laster

bilakatu zitzaion Aneri buruhauste. “Zer idatziko dut, ordea?”. Irakaslearen hitzak orokorregiak, lausoegiak, ilunegiak begitandu zitzaizkion. “Wolframak argiaren eroale gisa duen funtzioa deskriba nezake...”. Leiho txikiaz bestaldean abenduko iluntasuna zen nagusi. “Edo ebaketa tresnetarako duen garrantzia...”. Goizeko ordu biak hiru gutxi. Etxeak ere lotan zeudela zirudien, hain zen handia isiltasuna. “Eta wolframaren historia azalduko banu?”. Teilatu baten atzean San Pedroko kanpandorrearen silueta antzeman zitekeen. “Tira, zer edo zer idatzi beharko dut, bada...”. Hasperen egin zuen Anek.

Komunera joateko altxatzeaz batera, leihoaz bestaldeko gau iluna usnatu zuen. Gau-lanparatxoaren bonbilla argitsua aztertu zuen hurrena, eta gela ñimiño hartako lau horma epelen artean egote hutsagatik eskerrak eman zizkien, beste behin ere, zientziari eta zibilizazioari. Jakin bazekien, XXI. mendean bizitzeko aukera izanagatik, gizakiek naturaren menara jarraitzen zutela hein handi batean, gorputzaren behar fisiologikoak saihestezinak zirela. Hala ere, zientziaren aurrerapausoak ikaragarriak ziren eta Ane ziur zegoen egunen batean gizakia gai izango zela natura bera gainditzeko eta komunik gabeko etxebizitzetan bizitzeko.

“Denbora kontua besterik ez da, utz diezaiegun fisikari eta kimikari dagokien bidea egiten” pentsatu zuen hormako ispilu handiaren aurretik igarotzen zen une berean. “Edo, hobeto, eman diezaiegun bultzada txiki bat dagokien bidea egin dezaten”. Gelatik irten eta pasilloko argia piztu zuen. Wolframari buruzko etxeko lanak gorabehera, lasai zegoen, zoriontsu, uros, uste baitzuen mundua ekuazio sinple baten bidez adierazteko modukoa zela eta, finean, guzti-guztia denbora kontua besterik ez zela.

Tok-tok-tok. Komuneko argia piztear zegoen une berean, norbaitek sarrerako atea jo zuela iruditu zitzaion. Tok-tok-tok. Norbaitek hatz-koskor soilen laguntzaz etxeko atea xuabe-xuabe kolpatuko balu bezala. Tok-tok-tok. Une batez, bere irudipena zela pentsatu zuen Anek. Baina beste behin entzun zuen zarata. Tok-tok-tok.

Nor da?

“Lasai, nekatuta zaude eta ohera joan beharko zenuke. Gauza jakina da lo ezak haluzinazioak eragin ditzakeela”. Urduri baino urduriago, txiza egiteaz ahaztuta, pasilloko argiak itzaltzeaz ahaztuta, minutu batzuk lehenago izanak zituen zientziari eta naturari buruzko pentsakizun lausengarriak ahaztuta, bere gelatxora itzuli zen Ane larri-larri. Idazmahaiko lanparatxoaren argi zuria santuarioko bazter guztietaraino barreiatzen zen, baita ezkutukoenetaraino ere. Katutzarrak lo zirauen ispiluaren eta ohearen artean. Hobeto sentitu zen. “Ikusten? Zure fantasia besterik ez da izan, edo bizilagunen baten etxeko atean joko zuten, edo...”. Tok-tok-tok!!

Inoiz baino ozenago entzun zuen, zarata ez baitzen etxeko sarrerakoa, bere gelako leihokoa baizik. Tok-tok-tok!! Nor edo zer izan ote zitekeen? Laugarren solairuan bizi zen, kaletik hogeita hamar metrora, eta... Tok-tok-tok!! Jasanezina zen. Zer egin? Gela zeharkatu eta, birritan pentsatu gabe, leihoa ireki zuen.

Ikatza bezain beltza zen bele bat zuen begien aurrean. Hain zen beltza, non lehen begiratuan gau zati bat, hodei trumoitsu baten muturra edo Odinen mezulari bat aurrez aurre zuela pentsatu baitzuen Anek. Beleak hegoak astindu eta gela txikian barneratu zen, lanparatxo ahalguztidunaren gainetik ahal bezala hegan eginez, aurrera eta atzera hegan eginez, gora eta behera hegan eginez. Azkenean, ispilu handiaren gainean pausatu zen, bidean armairuko zenbait liburu eta orri linoliozko zoru gainera bota ondoren.

Ezer gertatu ez bailitzan, isiltasuna atzera jabetu zen gela txikiaz. Katuak lo zerraldo jarraitzen zuen. Egurrezko armairu handiak alde batean. Lanparatxoak piztuta, idazmahaiaren gainean. Baina ezer ez zen berdin. Leihoko kristalek belearen suzko begiak islatzen zituzten. Behe-lainoak etxea irentsi nahi zuela zirudien. Kaleko hotzak atzapar luzeak zituen. Aneren gelak, bere laborategiak, bere bihotz ñimiñoak, amore eman zioten arian-arian lepoko zainak estutzen zizkion beldurrari.

– Nor zara? —galdetu zuen neskak, defuntuak baino zurbilago.

- Munin, Munin! —erantzun zuen infernuko kreaturak.
- Zertara etorri zara?
- Munin, Munin!

Ane arrazionalki pentsatzen saiatu zen. Inork baino hobeto zekien beleek zenbait hots errepikatzeko gaitasuna dutela, eta, hotz-hotzean pentsatuz gero, hura guztia ez zen hain bitxia ere; azalpen logikoa zuen, izan behar zuen. “Bele gaixo bat besterik ez da, gauak edo behe-lainoak nahastuta bidea galdu duena”. Amiñi bat lasaitu zen.

- Non duzu habia?
- Munin, Munin!

“Bele gaixo bat besterik ez da, eta batek daki zergatik errepikatzen dituen hainbeste hitz horiek... Bihar begiratu dut. Bele gaixo bat besterik ez da... Bien bitartean, berak adierazi bezala izendatuko dut”.

– Tira, Munin deituko dizut! Gose al zara, txiki? Ekarriko dizut zerbait... —Anek ingurura begiratu zuen—. Hau kuxidadea! —geroz eta lasaiago sentitzen zen—. Eta hau hotza!

Ispiluaren markoan pausatuta, bere azpian gertatzen zen oro arreta handiz zaintzen zuela, beleak ebanozko estatua txikia ematen zuen. Neskak leihoa itxi eta hegaztiak lurrera bota zituen gauzak jasotzeari ekin zion. “Bele gaixo bat besterik ez da, gauak edo behe-lainoak nahastuta bidea galdu duena, bele gaixo bat besterik ez” errepikatzen zion, mantra bailitzan, behin eta berriro bere buruari.

Bazter batean lur hartu zuen fisika-liburu potoloa eskuartean hartzeaz batera, argazki zahar batek ihes egin zuen orrien artetik. Aneri jakin-mina piztu zitzaion. “Zer da hau?”. Idazmahaiko lanparatxorantz hurbildu zuen argazkia, argi sakratuak irudiak behar bezala bereizten lagun ziezaion. Une batetik bestera, malkoz bete zitzaizkion begiak. “Ez, ez da posible... Ez da posible...”.

—Errealitatea lurperatu dugunean ere, gure gogoaren sakonenean dantzan jarraitzen duen argi-izpia da memoria.

Anek urruneko ahots bat entzun zuen; zentzugabea, ilogikoa, irrazionala iruditu zitzaion ahots hura ispiluairen gaineko bele beltzarena zela pentsatzea. Hortaz, pentsatu zuen argazki zahar hura ikusi bezain laster ahotsa bere bihotzeko txoko ezkuturen batean sortu zela, artean behar bezala arakatu gabeko leku ospelen batean, arrotza zitzaigun haize-erauntsi batek errota matxuratuaren harrizko gurpilak bat-batean martxan jartzen dituen bezala, esku ikusezin batek herdoildutzat jotzen genuen iturria konpontzea lortzen duenean bezala, aspaldi sendatua uste genuen orban zaharra atzera odolusten denean bezala.

Intzirika, idazmahaiaren aurreko aulkian eseri zen Ane eta, inguratzen zuen laborategitik at, argazkia beste behin aztertu zuen. Irudiak bi lagun erakusten zituen, Ane bera mutil gazte batekin besarkatuta, eliza antzeko eraikin handi eta zuri baten aurrean. Biek ala biek irribarre egiten zuten, eta haien zoriona begien bistakoa zen, argazkia ikusiko lukeen edonor bizipoza eta inbidia puntu bat sentitzera bultzatzerainokoa ia-ia. Edonor, Ane izan ezik. Jatekorik topatzen ez duen barraskiloa imitatuz, bere baitako oskolean ezkutatu zen neska gaztea, eta Fabrice izeneko frantziar jatorra etorri zitzaion akordura, Parisen matematika ikasten zuteneko garaiak, unibertsitateak Erasmus ikasleentzat antolatzen zituen festa alaiak eta Pont Neuf-etik ordu txikietan paseatuz bi-biek elkarrekin egiten zituzten itzelezko barreak. Fabrice.

Ikasturtearen amaieran, Anek Argien Hiria utzi eta Donostiara itzuli behar izan zuen. Mutilak, berriz, Lyonera jo zuen. Harrezkero mezu elektroniko ugari bidali zioten elkarri, baina Fabrice izan zen Aneri internet alde batera utzi eta, halako batean, gutunak eskuz idazteko proposatu ziona. *Times New Roman* eta *Calibri* letra tipoak arrotzegiak zitzaizkion, antza, eta lagun euskaldunaren kaligrafia txukuna ikusi, usaindu, ukitzea zuen amets. Aneri burutazio ero samarra begitandu zitzaion eta halaxe adierazi zion frantziarrari. Ez al zen praktikoagoa eta azkarragoa e-mailak idaztea? Hala ere, irribarrez onartu behar izan zuen Fabrice beti izan zela halakoa, espontaneo eta inkoherente samarra, alegia, eta horregatik maite zuela.

Noiz edo noiz bataren edo bestearen herrian elkartzen ziren, eta hamaika gutun bidali zioten elkarri, harik eta egun batean Anek erantzunik jaso ez zuen arte. Handik lasterrera jakin zuen Fabrice kotxe-istripuan hila zela, eta bihotza bitan erdibitu zion berriak. Egun hartan pentsatu zuen zientziak aurrerapauso handiak egin dituela, errotik aldatu duela gizakiak bere buruari eta munduari buruz duen ikuspuntua, baina gaur egun ere haren izenean sakrifikatuko diren biktimak behar dituela, ezinbestean.

Fabriceren heriotza lurrikararen parekoa izan zen Anerentzat. Ahazten saiatu zen, bizitza berreraikitzen, maitasun berriak ereiten. Baita lortu ere. Horretarako, frantziarrak bidaliak zizkion eskutitzak zakarretara bota zituen, eta mutil jatorra erabat ahaztu, harik eta memoriaren zirrikituren batetik jalgitako argazki hark oroitzapen-uholdea berritu zion arte. Inoiz bizi izaniko su baten hondarreko ilintia doi, fantasma bat bezalakoa baita memoria, edo argi-izpi bat bezalakoa, gutxien espero dugunean ondo itxi gabeko zerraldotik ihes egin eta ate joka etortzen zaiguna. Tok-tok-tok.

Argazkia ikusteaz batera, Ane berehala jabetu zen justizia nahi zuela Fabriceren fantasma zaharrak, oroitzapen bat, leku txiki bat lagunaren bihotzean, lagunaren baitako laborategian. “Finean, gure barruko kimika-laborategiak Bergarakoa, Parisekoa eta Stockholmekoa bezain konplexuak izan daitezke” xuxurlatu zuen jaio bezain laster aienatu zen ahots lotsati batek.

Negar egiteari utzi gabe, argi batek zeharkatu zion burua. Ez al zen ideia ona...? Eskuineko eskuaz boligrafoa hartu eta wolframezko punta aztertu zuen, are gehiago, puntaren puntan boligrafoek izan ohi duten wolframezko bolatxo ñimiño hori arreta handiz aztertu zuen. Orduan, axotari behatzen artean tinko eutsi eta kimika irakasleak agindua zien etxeko lanari ekin zion:

Fausto eta Juan Jose Elhuyarrek Bergarako Laboratorium Chemicum-ean wolframa aurkitu zuten egunean, ezin aurreikus zezaketen deskubrimendu harrigarri hark mundu modernoaren erroak zer noraino astinduko zituen. Neurri handi batean, haien lanari zor diegu gaur egungo zenbait asmakuntza, boligrafoarena, besteak beste. Nork ez du, egun bizi dugun aro digitalean ere, postal luzerik edota maitasun-gutunik idatzi?

Mugikorreko alarmak behin eta berriro jotzen zuen. Anek begiak ireki eta erlojua begiratu zuen. Goizeko zazpiak! Hamabost minutu zituen ospa egin eta Ibargarai kaleko busa hartzeko. Nekatuta zegoen, gorputz-atal guztiak minbera, bereziki besoak eta lepoa. Posible ote zen idazmahaiaren gainean lokartu izana? Orduan erreparatu zion aurrez aurre zuen paper mordoxkari. Berak idatzi al zuen hori guztia? Bere letra zen, zalantzarik ez. Testuari begiratu azkarra eman zion. “Kimika irakaslea ezin kexatuko da...”. Arratsaldean irakurriko zituen, lasai arraio, orri guztiak. Orduan gogoratu zen. “Non da Munin?”. Ez zen belearen arrastorik ispiluko markoan, ez eta armairuko trepeten artean edo oheko burusi eta izaren gainean ere. Minutu batez, bart gaueko argazkiaren bila aritu zen, eta topatu ez. “Ametsa ote?”. Azkar-azkar jantzi zen. “Egia esan, erabat sinesgaitza da XXI. mendeko abenduan bele hiztunak gauez Bergarako leihoetan mokoka aritu daitezkeenik pentsatzea ere. Erabat sinesgaitza, bai jauna”.

Pentsakizun arrazionaletan murgilduta, Anek gau-lanparatxoko argia itzali zuen, pasilloko argia itzali zuen, eta etxetik irten zen presaka. Lau minutu zituen. Garaiz iritsiko ahal zen autobus geltokira! Gela utzi zuenean gutxiago pentsatu eta apurtxo bat arretatsuagoa izan balitz, zirin tanto bat ikusiko zukeen ispiluaren azpian, lotan jarraitzen zuen katutzarraren ondoan, eta luma beltz txiki-txiki bat idazmahaiko boligrafoen artean.

Ipuinak

Bosgarren taldea 2. Saria



Ainhoa Pardina

**Kartzelako atearen
beste aldeko bizitza**

Kartzelako atearen beste aldeko bizitza

Oihuak entzuten nituen, nire eta beste hainbat euskaldunen aldeko oihu ozenak, “libre nahi ditugu” edo “herriak maite zaituzte” zioten oihuek... dena alferrik, bagenekien zer gertatu behar zitzaigun, bagenekien nolakoa izan behar zen gure etorkizuna... dena ilun ikusten genuen, baina, hala ere, familiakoak eta lagunak apur bat bada ere, animatzeko asmotan, irribarre batekin aldendu ginen furgonetatik indarrez irtenarazi gintuztenean.

– Hi, Txomin, animo!

– Bai Peio, eskerrik asko... Zorte pixka batekin kalean gaituk bi egunetan!

– Ziur egun bakar bat ere ez dugula zulo honetan eman beharrik izango!

Biok genekien zein zen errealitatea, baina, hala ere, geure buruak engainatzen saiatzen ginen, laguna animatzeko esperantzaz.

– Txomin, Patxi, joango al gaituk kaña pare bat hartzera bi ordu barru?

– Bi ordu barru? Zer diok baina? Ba al dakik non gauden? Barre egiteko gogoak daukak oraindik? – zioen Patxik, beti bezain ezkor-.

– Hi Patxi, ezin gaituk lurrera begira gelditu, isil-isilik, mundua amaitzear balego bezala...

– Mundua ez, gure bizitzak zaudek amaitzeko zorian; baina tira, zuek jarraitu zuen txantxatxoekin, ea nola amaitzen duzuen...

Horrelakoetan guztiok isiltzen ginen, izan ere, nork altxatuko zuen burua horrelako mutil ezkor baten aurrean? Ezinezkoa da...

Azkar epaitu gintuzten, azkarregi... segituan erabaki zuten gu aske uztea ez litzatekeela justua izango, beraz, zoritxarrez, guztiok espero genuena gertatu zen, kartzela hotz eta deseroso batean sartu gintuzten.

–Peio, harro al hago? Begira hire txantxa zikinek nora eraman gaituzten! Egin ezak barre orain, gogoarekin jarraitzen baduk! – Behin eta berriz Patxik, haserre bizian-.

–Ez hadi nazkantea izan, barre egitea ez duk sekula gaizki etortzen eta berdin berdin amaitu behar genian hemen...

–Lasaitu gaitezen! Ondo konpondu beharra zaukaagu, izan ere, batek dakik ze jende mota dagoen hemen eta zer egin nahiko diguten...

Beti bezala, lasaitasuna ezartzeko saiakera egin beharra nuen, gu baikinena inor hil ez zuten zulo hartako pertsona bakarrak, eta beraz, fidagarrienak.

Lehenengo egunak gogorrak izan ziren, gehienbat sentitu genuen bakardadearengatik; izan ere, ni hor barruan sartu eta astebetera nire arreba gazteena ezkondu zen. Ziur nago ez zutela beste edozein ezkontzatan bezain ondo pasatu, ezta gutxiago ere! Hala ere, familia guztia elkartu zen, baina nik zuloan jarraitzen nuen... bakartasuna esperimintatzen, isiltasuna entzuten ikasten eta neure burua besarkatzen ohitzen.

Denbora pasatu ahala, nahiz eta bakardade horretara ohitzen hasi ginen, ez ginen askoz hobeto sentitzen. Preso politiko gehiago ezagutu eta beraiei lagun egin ginen, eta horietako asko aske uzten zituzten bitartean, beste horrenbeste atxilotzen zituzten, beraz, beti zegoen zertaz hitz egin.

Patxik eta Peiok beti berdin jarraitzen zuten, beti liskar batean, baina nik badakit liskar haien atzean maitasuna zegoela, maitasun sendoa. Euren artean borrokan zebiltzan bitartean nik neure gauzetan pentsatzen nuen, eta nire familia maiteari gutunak idazten nizkion.

Aipatutako gutun haiek beti jasotzen zuten erantzuna, baina egun batean espero ez nuen berri bat jaso nuen; zera zioen gutunak:

“Kaixo Txomin,

Badakit garai txar bat bizitzea egokitu zaizula, eta badakit nire ezkontza galdu behar izan zenuela. Hala ere, beti idazten dizut, ahal dudan guztietan behintzat, nahiz eta gehienetan berri garrantzitsurik ez izan. Oraingo gutun hau ez da besteak bezalakoa, Txomintxo, berri zirraragarri bat daukat: Osaba izan behar zara! Osaba Txomin!

Txomintxo, badakit pena handia dela jaiotza hau ere ezin ikusi izatea, baina zin dagizut ahal dudanean Madrilera eramango dudala, zuk ikusi eta ezagut dezazun! Oraingoz neska dela besterik ezin dizut esan, eta Haizea edo Itsaso izenen artean duda-mudatan gaudela, izan ere, badakit zuri naturarekin harremana duten izenak gustatzen zaizkizula; bi izenetatik zein duzu nahiago? Agian zuri utziko dizugu aukeratzen (ondo portatzen bazara).

Beno anaiatxo, agur esan behar dizut, lanera itzuli behar baitut. Espero dut berri honek zure horko egoera apur bat hobetu izana.

Laster arte,

Zure arreba gazteena.”

Bat-batean saltoka hasi nintzen, poz-pozik, osaba izateko gogo itzelarekin. Beti gustatu izan zaizkit haurrak, ume-umetatik, eta nire bizitzan haurtxo bat agertzeari jaso nezakeen berririk onena neritzon.

– Patxi! Osaba izan behar nauk! Osaba! Aditzen? Osaba Txomin!

Ezin nuen barruko zirrarara hori neuretzat gorde eta ezin nintzen geldik edo isilik gelditu; beraz, preso guztiek izan zuten nire bat-bateko zoriontasunaren arrazoiaren berri.

- Zorionak Txomin! Pozten nauk, baina ez hadi emozionatu, bere lehenengo urteetan ez hau ezagutuko eta! Gainera badakik, umeak lehenengo urteetan polit askoak dituk, baina apur bat haztean jasanezinak bihurtzen dituk!
- Hori ez duk egia, Patxi! Alde batetik, arrebak esan didanez, ahal duenean hona ekarri behar dik, nik ezagut dezadan; eta beste alde batetik, nire iloba ez duk inoiz jasanezina izango! Beti izango duk

munduko neskatxarik polit eta maitagarriena!

- Ongi zagok txo! Ez hadi haserretu... Tira, eta erabakita al zaukatek izena?
- Ez, oraindik ez, baina Itsaso edo Haizea izango omen duk, badakik, naturarekin zerikusia duten izenak, euskaldunongan oso ohikoa den bezala.

Patkik apur bat haserrarazi ninduen, eta nik kontra egin nion arren, egia esan, berak bezala pentsatzen nuen... nire ilobaren lehenengo urteak galduko nituen, bere argazkiak ikusteko aukera izango nuen, bai, baina berak ni ez ninduen ezagutuko. Eta zulo beltz honetatik irtendakoan niregana hurbiltzerik nahi ez balu? Ni berarentzat ezezaguna izango nintzelako beldurra nuen barruan, eta handik urte batzuetara onartuko ez ninduen beldurra.

Hilabete batzuk pasa ziren eta beste gutun bat jaso nuen:

“Txomintxo, berri on eta txarrak dauzkatz,

Haizea jaio da eta bere xarmagarritasunarekin guztiok txora-txora eginda gauzka. Oso ume polita da, guztiz maitagarria, eta ia ez du negarrik egiten.

Zoritxarrez, bada erditzean negarrik egiten ez zuen beste izakitxo bat... Ez genekien, baina bikiak nituen nire tripa barruan, bi neskatxo, Itsaso eta Haizea. Esan dizudan bezala, Haizea osasuntsu dago, baina bere ahizpa izan behar zenaren egoera ez da berdina... Hilik jaio da... gorpua besterik ez da irten nire barrutik... Badakizu? Ez genekien beste izakitxo bat nuenik barruan (ez baita gizaki izatera iritsi) baina, hala ere, esan diguten momentutik umetxoa maitatzen hasi gara, eta nire gorputza utzi zuenean negarrik entzun ez genuelako sumatu genuen egoera zein zen, eta benetan, oso gaizki pasatu dugu, alabatxo jaio berria hiltzea oso latza da, baina tira, aurrera egin beharko dugu, eta Haizeak lagunduko digu horretan.

Oraindik oso txikia da zauden lekura eramán ahal izateko, baina zin dagizut ahal dudán bezain laster eramango dudala, bere osaba

Txomin ezagut dezan. Bitartean zure argazki batzuk erakutsiko dizkiot, horrela zu lehenengo aldiz ikustean ez da deseroso sentituko.

Laster arte.

Zure arrebatxoa”

Asko poztu ninduen nire arrebaren eta Haizearen berri edukitzeak, izan ere, aspaldian bisitan agertu gabe zegoen, haurdun zegoela arriskutsua edo omen zelako. Gainera, Haizeatxo ezagutzeko irrikaz nengoen, eta zera galdetzen nion neure buruari: Nolakoa ote da? Zoragarria ziur... Eta ausarta edo beldurtia ote? Nigana hurbiltzean beldurtuko ote da? Onartuko al nau? Maiteko al nau? Urte batzuk pasatu eta gero bere osaba Txomin gaiztoa dela pentsatuko al du, kartzelan egon izanagatik?

Peiori eta Patxiri gertatuaren berri ematea erabaki nuen, baina nik nituenak baino askoz berri latzagoak jaso nituen zoritxarrez... Peio hil egin zuten, ihes egiten saiatu omen zen eta orduan polizia batek tiro egin omen zion... Patxiren ziegara joan nintzen korrika eta hori ere hilik aurkitu nuen! Sabaitik soka batez zintzilik... Ezin nuen sinetsi! Bakarrik gelditu nintzen, bakar-bakarrik... Nire lagunak hilik zeuden jada, eta nik zer egin behar nuen orduan? Negarrez nire ohean etzan nintzen.

Burua lehertzeaz neukan, Haizeari buruzko galdera gehiegi alde batetik, eta iloba izan behar zuenaren Itsaso gaixoaren galera bestetik; gainera, baita nire lagunen heriotza gogorrek ere.

Nire bizitza osoan gauza dezente ikusi eta ezagutu ditut, baina badirudi gauza garrantzitsu guztiak ni zulo honetan nagoen bitartean gertatu behar direla, posible al da?

Nire epaia ebatzi zuen pertsonak zulo honetan bost urte igaro behar nituela esan zuen, guztia mendian karta batzuk ezkutatzearagatik soilik. Agian, egia da egin nuena ez nuela egin behar, baina hori egiteagatik “ETA”koa nintzela esatea ez zait normalegia iruditzen, eta gutxiago bost urteko kartzela zigorra ezartzea... Dena den, hiru urte eta erdi neroala, polizia batek kartzelako nire gelatik indarrez atera ninduen, saminduta eta haserre balego bezala, eta zera esan zidan:

“Terrorista de mierda, tienes suerte, pero te aseguro que si dependieses de mi te pudrirías en la cárcel”.

Egia esan, ez nion erdia ere ulertu, ez baitut gaztelania guztiz menperatzen, eta zer gertatzen ote zen galdetzea erabaki nuen (nahiz eta ziurrenik horren erantzuna ere ez ulertu):

Perdone señor –hasi nintzaion hizketan-, ¿me podría decir usted qué pasa?

¿Que qué pasa? Que te dejan volver a tus tierras.

Libre utziko nindutela ulertu nion, baina politegia iruditzen zitzaidan egia izateko, beraz ilusio handiegirik ez egitea erabaki nuen, zetorrena zetorrela onartzea, eta egia balitz aske geldituko nintzela, orduan benetan poztuko nintzateke.

Nire besotik tiraka jarraitzen zuen gizonezko desatsegin hark, eta bat batean, gelditu ginenean, kartzelaren atearen beste alde ikusi nuen, hau da, askatasunaren seinale zen natura, eta bertan nire familia eta pare bat lagun nire zain, guztiak negarrez.

Triste nengoen nire lagunek ez nindutelako berriz aske ikusiko, eta eurak ere ezin izan zirelako berriz ere aske izan, baina beste alde batetik, poz-pozik nengoen, nire familiarekin elkartu nintzelako azkenean, eta Haizeak ez zuelako kartzela barrutik ezagutzeko beharrik izan.

Gaur nire historia kontatzea erabaki dut, jendeak kartzelari buruzko hainbat gauza jakin dezan eta gehienbat zer nolako injustizia dagoen ohar daitezen. Haizeari hasieratik egia kontatu genion, ez ginen gertatutakoaz lotsatzen, eta berak segituan ulertu eta berdin-berdin maite izan nau hasieratik.

Nire lagunez beti oroitzen naiz; orain dela 25 urte inguru hil ziren, baina beti jarraituko dute bizirik nire bihotzean.

Ipuinak

Bosgarren taldea 3. Saria



Amaia Etxaniz

Ametsean bidaia

Ametsean bidaia

Abestia bukatzean, txalo zaparrada hasi baino segundo bat lehenago, munduko pertsona boteretsuena sentitzen naiz. Momentu hau, kontzertu bateko azken abestiaren bukaera, beti zati hoberena izaten da.

Inoiz ez naiz hain pozik sentitu, eta eszenatokitik irtetean, bertan daude Keira, nire lagunik onena, eta Levi nire mutil laguna. Irribarre handi batekin biak besarkatzen ditut.

–Izugarri egon zara, Aoife! –dio Keirak bi musu ematen dizkidan bitartean.

–Nire ustez, orain arte egindako kontzertu hoberena izan da –orain Levik ematen dizkit musuak–. Zorionak, benetan. Pentsa, inoiz ez duzu 10.000 pertsonaren aurrean abestu, eta gaur sekulako arrakasta izan duzu, inoiz baino gehiago.

–Eskerrik asko, benetan. Egia esan, gaur inoiz baino hobeto sentitu naiz, boteretsuago esango nuke. Munduko erregina banintz bezala.

Hirurok barre egin dugu, eta afektuz begiratzen ditut.

Keira eta ni ume ginenetik gara oso lagun, inoiz ez gara banandu. Baina biok oso ezberdinak gara, bai fisikoki eta baita izaeran ere; ni nahiko handia naiz, eta ile beltza eta begi berdeak ditut. Nire antza begietan soilik dauka berak, nik bezala berdeak baitauzka. Hala ere, bera txikia da ni ez bezala, eta ile argia dauka, ez guztiz horia.

Eta izaeran, ni beti oso zabala izan naiz, eta pentsatzen dudana esaten dut

gehienetan. Oso erraza egiten zait jende berria ezagutzea eta beraien lagun egitea. Gehienbat horregatik pentsatu nuen abeslari izatea, hala ez bazen, ez nintzen gai izango eszenario batera igotzeko eta.

Bera berriz oso isila eta itxia da ezagutzen ez duen pertsonekin. Nirekin ez da inoiz horrelakoa izan, baina beti nik lagundu behar izan dut beste batzuk ezagutzen. Agian hain ezberdinak garelako gara horrelako lagun onak.

Eta Levi fisikoki Keiraren antzerakoa da, bera mutila eta askoz altuagoa dela kontuan hartu gabe; baina izaeran nire berdina da, zabala eta oso lagun ona.

Egia esan, nahiz eta hain ezberdinak izan, berdin maite ditut biak (baina zentzu ezberdinean, noski)

–Zer iruditzen zaizue taberna batera bagoaz arrakasta hau ospatzera? –galdetzen diet.

–Bai, primeran.

Beraz, nik oso gustuko dudan taberna batera goaz. Irteterakoan zenbait fan-ekin topatzen gara, eta denak pozik utzi ondoren (argazkiak ateratzen, etab.) gure bidea jarraitzen dugu. Taberna nahiko xumea eta txikia da, eta bertan ez dago jende asko. Denek txikitatik ezagutzen naute, beraz lasai sentitzen gara.

Gaueko ordu 2etan, denok oso nekatuta gaudela, etxera bultzatzeko ordua dela erabakitzen dugu. Alde batetik Keira doa, eta bestetik Levi eta ni.

Etxera heltzean arropak azkar aldatu eta zuzenean ohera sartzen naiz. Minutu baten jada loak hartuta nago.

Eta bat-batean nire txikitako ikastolako gelan nago. Ez dakit nola heldu naizen bertara, baina Levi ez dago nire ondoan.

“Zer arraio egiten dut nik hemen? Bromaren bat izango da? Seguruenik bai, Levi eta Keira beti horrelako gauzak niri, Aoife handiari, egiten... Hara! Nire ikastolako mahaia... zahartuta, baina berdin-berdina... Eta nik egindako marka oraindik bertan dago! Zenbat oroitzapen... Hotza... Zer

dago berogailuaren inguruan? Ea, begiratuko dut...”

Putz egin dut, zerbait, hautsa izango da edo, inguruan bueltaka dago eta.

Eta momentu berean, Levi eta Keira atletik sartzen dira, bat heavy-z eta bestea hippie-z jantzita. Barregarri daude, baina aurpegiak oso serioak dituzte.

–Aoife! Zer egiten duzu oraindik hemen?

–Ba egia esan...

–Azkar! Norbaitek putz egin du eta ikastola sutan hasi da!! Alde egin behar dugu hemendik!

Zer? Barkatu? Nik putz egiteagatik ikastola sutan dagoela? Ez dut ezer ulertzen, baina hala ere jarraitu egin diet biei. Ikastolako pasilloak nik gogoratzen nituen bezalakoak dira, jolasean eta pozik garrasika dabiltzan umez beteta. Baina korrika gehiago egin ahala, lekua txikituz doa, eta umeek gu ikusten gaituztenean, beldurrez garrasi egiten hasten dira. Gero eta ume gehiago daude, eta batzuk gure atzetik korrika hasten dira. Hasieran beldurragatik ez ditut begiratzen, baina aurpegiak aldatzen zaizkiela konturatzen naiz bat-batean. Azkarrago joaten saiatzen naiz, baina ume bat aurrean jarri eta jausi egin naiz.

–Ai!! Barkatu ez zaitut...

Inguruan begiratzean, kobazulo ilun batean nagoela konturatzen naiz. Bertan daude Levi eta Keira, biak niri begira zonbiek bezala, begirada galduarekin.

–Zer egiten dugu hemen? Nola heldu gara? Eta ikastola? –galdetzen diet nik. Ahotsean dardararik ez nabaritzen saiatzen naiz.

–Lasai, hemen salbu gaude, suak ez gaitu erreko –erantzuten dit Keirak. Horrek beldurra alde batera utzi eta are gehiago haserretzen nau.

–Nola erreko gara, bada? Hemen ez dago ikastolarik, koba bat da!

Inork ez du erantzuten, eta segundo batzuk geroago, uraren soinua entzuten dut. Harritu egiten nau horrek, orain arte isiltasuna soilik entzuten baitzen. Baina okertuz doa, lehen tanta batzuk ematen zutenek orain ur

zorrotada bat ematen dutelako. Eta, hori gutxi balitz, soinua gerturatuz eta ur kantitatea handituz doa.

Hanketan hotza sentitzen dut, eta behera begiratzean, zapatak ur putzu baten barruan ditudala ikusten dut. Uraren nibela igotzen doa, eta minutu erdian gerri parean daukat. Jada badakit hil egingo naizela, baina hala ere garrasi egiten dut nire indar guztiekin. Eta orduan arnasa ezin dudala hartu sentitzen dut. Berriro saiatzen naiz, ahotik oraingoan, eta tximeleta bat sartzen zait bertatik.

Tximeleta bat...?

Begiak zabaldu eta jarraian itxi egin ditut, eguzkiak min egiten dit eta. Pixka bat ohitu naizenean, ingurua begiratu eta aho zabalik gelditzen naiz nire aurrean dudanarekin. Horrela, tximeleta berriro irten egiten da.

Nire aurrean inoiz ikusi dudan zelai berdeena dago. Ez da zuhaitz bat ere ikusten, eta denbora bat beranduago konturatzen naiz nire bi lagunak nire ondoan daudela.

–Jarraitu guri.

Eta hori bera egiten dut. Hamar minutu ibiltzen aritu ondoren, paisaia aldatuz doa. Zuhaitz gehiago daude, eta gero eta handiagoak dira. Azkenean, baso baten bukatzen dugu ibiltzen. Baina, bat-batean, zuhaitz horiek guztiak atzean laga eta amildegi baten aurrean bukatzen dugu.

–Orain bota zaitetz bertatik –dio Levik–, bestela erre egingo zara, edo hiru lehoik jango zaituzte (gose daude), edo han goiko sorginak sorgindu egingo zaitu edo beste hainbat gauza txar gertatuko zaizkizu.

Harrituta gelditzen naiz ni, entzundakoa ezin sinistu, baina orduan sua, hiru lehoiak, sorgina, laino erraldoi bat eta beste gauza beldurgarri asko ikusten ditut, eta agian botako naizela pentsatzen dut. Baina erabakitzeke denbora ez dit ematen, momentu horretan Keirak bultza egiten baitit.

Garrasika esnatzen naiz nire etxeko ohean, Levi ondoan dudala. Bera nire garrasiekin esnatu egiten da, eta segituan ni lasaitzen hasten da. Lasaitzen naizenean gertatuko dena kontatzen diot, eta azkenean nahiko lotsatuta

sentitzen naiz hainbeste beldur pasatzeagatik.

Arratsaldean, parkera noa, eta gertatutakoari buruz hasten naiz pentsatzen. Orain tontakeria bat iruditzen zait, baina ametsa oso erreala izan da, nahiz eta hainbeste gauza arraro pasatu bertan.

Nekatuta, zerura begiratzen dut, eta aurreko zuhaitzean mugimendu bat nabaritzen dut. Aurrera begiratu, eta bertan, niri begira, ametsetako sorgina ikusten. Minutu bat geroago, bata besteari begira egon ondoren, sorgina jaiki eta badoa.

Nik gauza bera egiten dut pixka bat geroago, eta etxerantz noa. Ametsa benetakoa izan dela sinisten hasten naiz, sorgina ikusi eta gero. Agian, horrek pertsona hobeia izan behar dudala esan nahi du. Edo zoratuta nagoela. Edo agian ez zuen ezer esan nahi, bakarrik amets bat izan da.

Pentsatzeari utzi egin diot, hainbeste gauza buruan ezin baitira eduki. Hemendik aurrera besteengan atentzio gehiago jarriko dudala erabakitzen dut, amets horrek aldatu eta hobeia egingo nauela pentsatu nahi dut eta.

Beraz, etxean berriro sartzean, irribarretsu egiten dut, eta nire bizitza aldatu egiten da momentu horretan, norbaitek ni sorgindu banindu bezala.

Bertsoak

Behenengo taldea Saria



Itziar Aldazabal

Finalaren bila

Finalaren bila

Koldo Eleizalde da
ondo pasatzeko
eta batzuetan be
guk irabazteko.
Ni bertso eskolan nabil
asko ikasteko,
finala irabazita
etxera joateko.

Batzuk bertsoak kantatu ordezt
nahiago dute opera,
baina aitortu beharra dago
gu bertsolariak gera.
Beti bertsoak kantatu eta
segitzen dugu aurrera
ta gainera ondo erabiltzen dou
betidanikan euskera.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227708>

Bertsoak

Behenengo taldea Saria



Maidar Iribecampos

Jatekuak

Jatekuak


Guri asko gustatzen
zaigu espagetia
egunero jatea
hori bai suertia

Behiaren txuleta da
gozo-gozoena
txerrien odolkoa
gustatzen zaiguna

Euskal Herrian jaten
legatza ta opila
gustatzen zaigu asko
zopa ta tortila

Bazkari baten jaten
entsalada oilasko
postrean sagar tarta
beteta etxerako!

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227687>



Bertsoak

Bigarren taldea Saria

N
P
A

Nagore
Otaolai
Paula Palacios
Aitor Elkorro

Bergarako herria

Bergarako herria

(Doinua: Pasaiaiko herritik)

1.

Bergarako herritik
dator notizia
bertako herrikoek
daukaten irria.

2.

Gaur egungo turisten
irrifar handiak
esaten dosku guri
hain polita herria!

3.

Herri polit zaharrean
egon zen gerria
oso gogorra eta
urratu larriak

4.

Bertako plazan dago
Ikurriñ handia
Gora begiratuta
punta ikusia.

5.

Usondoko parkeko
usotxo maitiak
hainbeste gose dute
guk eman ogia.

6.

Agur honekin goaz
jaun eta andriak
hemen egongo gara
hurrengo urtian.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227689>

Bertsoak

Hirugarren taldea 1. Saria



Maddi Txintxurreta

**Euskal Herri
feminista**

Euskal Herri feminista

1.

Ai, emakume, zenbat alditan
saiatu dira gu isiltzen?
Gure kemena eta indarra
ez al dute ezagutzen?
Itzalpean bizi izateaz
aspertu gala esan ozen
bazter batean egotea baino
hobeto bazterrak nahasten.

2.

Ez zerbitzari, ez eta biktima
ez eta inoren esklabo
hurrena ez da soilik izango
emakume bat gehiago
itxi ezin den zauria da ta
hilero dut argiago:
zuek isuritako odola
nire kulerotan dago.

3.

Gizonen lana jakintza bada
ezagutuz aldatzea
oraintxe zuei dagokizue
pauso bat atzeratzea
emakumeak zuen parera
behar du aurrera egitea
hau da berdintasuna eta ez
saldu diguten bestea.

4.

Historian ez gaituzte idatzi
goazen, ba, historia egitera
zintzilikatu amantalak ta
irten etxetik kalera
instituzio eta bihotzak
denak morez pintatzera
josi geroa, segi leloa
eta ez egin atzera.

5.

Haga zaluen diktaduretan
izango gara aizkolari
sustraietatik tira eginez
sasi-berdintasunari
erratz gainean hasi hegaka
eta esan munduari
gure gorputzen erreinuetan
gu garela agintari.


6.

Hainbeste guda, aldarrikapen
eta hainbeste konkista
euskaldunok beti izan dugu
borrokan jarria bista
zein da, orduan, aitzakia ta
zein da falta zaigun pista?
Bada garaia eraikitzeko
Euskal Herri feminista.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227675>

Komikia

Behenengo taldea Saria



Anne Matilla

Mariren abenturak



MARIEN

ABEN

TURAK



Eta horduan xagui-
zahar bat agertu zen.



getoago...



3. proba




4. proba

















Komikia

Behenengo taldea Saria




Iker Etxaniz

Igel bat motorrian




Komikia

Behenengo taldea Saria



Belen Pelicano
Eider Goikoetxea

Bapateko maitasuna



Komikia


Bigarren taldea 2. Saria



Jon Imanol Elgarresta
Daniel Diaz de Gereñu


Patxik
nola salbatu zuen lurra

PATXIK NOLA SAGOTU ZUEU LURRA



Komikia

Hirugarren taldea 1. Saria



Ma Angeles Padilla

**Aurrerapen
oso atzeratua**

AURRERAPEN OSO ATZERATUA



Komikia

Hirugarren taldea 2. Saria



Joseba Carnicero

**Langileak
beti langile**

LANGILEAK BETI LANGILE

